



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# GENERO ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEN: Lehen Hezkuntzan Ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzeko adibide bat

GRADU AMAIERAKO LANA



EGILEA: Amatria Valencia, Andrea

ZUZENDARIA: Bizkarra Morales, Mariate

2020-2021 IKASTURTEA

## **Laburpena**

Gradu Amaierako Lan hau generoen arteko desberdintasuna jorratzea du gai nagusi bezala. Gai hori garatzeko, Lehen Hezkuntzan Ikaskuntza-zerbitzu bat eraman da aurrera zeinetan 2. mailako 34 ikasleek saio batzuetan parte hartu duten, esku-hartzearen helburua hurrengoia izanik: ikasleek ohartzea genero desberdintasuna oraindik badaudea eta estereotipoek horretan eragin handia dutela, genero estereotipoek zehazki. Proposatutako zerbitzua aurrera eramateko ikaskuntza-zerbitzua metodoa erabili dugu, errealitatean ematen diren arazoak konpontzen saiatzen den metodologia. Metodo hau aukeratzearen arrazoi nagusia ikasleen inplikazio altua eskatzen duela eta gabeziak identifikatzen dituela da, dena den, aurerago zehaztasun gehiagoz azalduko da zertan datzan metodo hau. Esku-hartzearekin lortutako emaitzak baliagarriak izan zaizkigu generoari buruz ikasleen aurreiritziak zeintzuk diren jakiteko eta hori abiapuntu izanik, zer nolako estereotipoak barneratu dituzten jakiteko. Hauek aztertu eta hausnarketa desberdinak egin ostean, ikasleen erantzunak nondik datozen jakin ahal izan dugu eta aldaketa bat egiteko eta generoen arteko berdintasunera iristeko lehenengo hastapenak emateko aukera izan dugu.

## **Hitz gakoak**

Genero desberdintasuna, estereotipoak, maskulino, femenino, ikaskuntza-zerbitzua

## **Resumen**

Este Trabajo de Fin de Grado gira en torno a la temática de la desigualdad que se da entre géneros. Para trabajar este como tema principal, se ha llevado a cabo un servicio Aprendizaje por Servicio, donde 34 alumnos y alumnas de segundo de Educación Primaria han participado en una intervención cuyo objetivo principal era el siguiente: que los alumnos y alumnas sean conscientes de que la diferencia que se da entre géneros todavía existe y que los estereotipos tienen un gran impacto en esta diferencia, sobre todo los estereotipos de género. Para llevar a cabo esta intervención hemos utilizado el método Aprendizaje por Servicio, una metodología que intenta darle solución a los problemas que aparecen en la vida real. Una de las razones principales por la que hemos decidido utilizar este método es que identifica las deficiencias y exige una alta implicación por parte del alumnado. Los resultados obtenidos mediante esta intervención nos han servido para saber cuales son los prejuicios del alumnado sobre el género y para saber cuales son los estereotipos que tienen interiorizados. Después de analizar estos resultados y hacer diferentes reflexiones, hemos podido saber de dónde vienen las ideas de nuestros alumnos

y alumnas y gracias a ello hemos tenido la oportunidad de dar los primeros pasos y cambios para intentar llegar a la igualdad de género.

### **Palabras clave**

Desigualdad de género, estereotipos, masculino, femenino, Aprendizaje por Servicio

### **Abstract**

This Final Degree Project focuses on the issue of inequality between genders. As the main topic, an Service-learning service has been carried out, in which 34 students in their second year of Primary Education have participated in an intervention whose main objective was to make them aware that the difference between genders still exists and that stereotypes still have a great impact on this difference, especially gender stereotypes. For this purpose, an Service-learning service has been used as a methodology to provide solutions to real-life problems. This method identifies deficiencies and requires a high level of involvement from the students. The results obtained through this intervention have helped us to know about the students; stereotypes and prejudices of the gender differences. After analyzing these results and making different reflections we have been able to know where the ideas of our students come from and we have had the opportunity to take the first steps and changes to try to achieve gender equality.

### **Key words**

Gender inequality, stereotypes, male, female, Service-learning

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA</b>	<b>6</b>
<b>3. HELBURUAK</b>	<b>14</b>
<b>4. METODOA</b>	<b>15</b>
4.1 Antolakuntza	15
4.2 Partaideak eta testuingurua	17
4.3 Prozedura	19
4.4 Informazioa jasotzeko tresnak	21
4.5 Jasotako informazioa tratatzeko prozedura	22
<b>5. EMAITZAK</b>	<b>23</b>
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>35</b>
<b>7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK</b>	<b>37</b>
<b>8. ERREFERENTZIAK</b>	<b>39</b>
<b>9. ERANSKINAK</b>	<b>42</b>
9.1 Ikasleei pasatako galdetegiak	42
9.2 Emakume kirolarien informazioa bilduma egiteko	44
9.3 Erabilitako bideo eta katalogoak	50
9.4 Rol-jolaserako materiala	50
9.5 Esku-hartzea egiteko erabilitako fitxa	53
9.6 2. mapa kontzeptuala: sistema kategoriala saioen emaitzekin	56
9.7 Emakume kirolarien bildumeko argazki batzuk	57

# 1. SARRERA

Lehenik eta behin esan beharra dago lan hau CBL programaren barruan gauzatu dela. CBL edo Campus Bizia Lab bezala ezagutzen duguna helburu du lankidetzaren prozesu bat sortzea administrazio eta zerbitzuetako langile, ikasle eta irakasleen artean (diziplina anitzeko ikuspegia lortzen), unibertsitatearen beraren barruan iraunkortasun erronkei erantzute aldera. Horrez gain, Unescoko Garapen Iraunkorreko helburuak garatzea ere du helburu. 17+1 dira helburu hauek baina EHU-k ez ditu guztiak bere gain hartzen eta lau lerro egin ditu 13 lantzeko, hurrengo eran antolatuak daudenak:

- **Ikaskuntza kooperatiboa eta dinamikoa**→ kalitatezko hezkuntza, lan duina eta hazkunde ekonomikoa, bakea justizia eta instituzio sendoak, helburuak lortzeko itunak, hizkuntza eta kultur aniztasuna
- **Planeta**→ osasuna eta ongizatea, energia eskuragarri eta ez kutsatzailea, industria, berrikuntza eta azpiegitura, hiri eta komunitate jasangarriak, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, klimaren aldeko ekintza
- **Inklusioa**→ desberdintasunak murriztea
- **Berdintasuna**→ genero berdintasuna

1. irudia: Garapen Iraunkorreko 17+1 helburuak



Gure GrAL-ak burutzeko lau proposamen egiten dizkigute, kalitatezko hezkuntzarekin, genero berdintasunarekin, desberdintasunak murriztearekin eta hizkuntza eta kultura

aniztasunarekin zerikusia dutenak. Azkenik, proiektu honekin lortu nahi duguna da Garapen Iraunkorreko 5. helburua garatzea, genero berdintasuna hain zuzen.

Gradu Amaierako Lan hau aurrera eramateko generoen artean ematen den desberdintasuna aukeratu dut gai nagusi bezala. Gai hau lantzea oso zaila edo konplexua izan daiteke, azken finean etengabe ikertzen ari delako eta aldaketak egiten saiatzen ari direlako egoera hobetzeko asmoz. Aldaketa honetan eragina duen faktore nagusia estereotipoak lantzea da, eta justu hauek izango dira lan honetako abiapuntu garrantzitsuenetariko bat. Genero estereotipoek txiki-txikitatik gure jarreretan, ideietan eta gure identitatearen eraikuntzan zer nolako eragina duten ikusiko dugu, eta zer nolako arlotan agertu ahal diren aztertuko dugu.

Lan hau aurrera eramatearen arrazoi garrantzitsuenetako bat da gaur egungo gizartean ematen den arazo larrienetako bat dena, genero desberdintasuna eta matxismoa. Gauza asko aldatu diren arren, oraindik lan asko dugu aurretik. Arazo larri honekin amaitzeko, gizartearen pentsatzeko era eta gizartea antolatua dagoen era guztiz aldatu beharko litzateke, generoak maila berean kokatzeko, desberdintasunik egin gabe, eta genero estereotipoek desberdintasun horretan eragina ez izateko eta pertsona bakoitzaren izaera ez mugatzeko.

Arazoari aurre egiteko benetan gizartea pentsaraztea eta aldatzen saiatu nahi badugu belaunaldi gazteenekin berdintasunean hezitzea ezinbestekoa da, txikitatik haien ezagutzak berdintasunean eraikitzen joateko. Baina esan behar dugu hori lortzeko garrantzitsua dela ere egunerokotasunean bizi den errealitatea zein den ezagutzea. Aldaketa zergatik eman behar den ulertzeko eta nondik-norakoak zeintzuk izan behar diren jakiteko, hori da, hasiera puntu batzuk markatzeko eta pixkanaka-pixkanaka pausu txikiak ematen aldaketa txikiak lortzeko.

Eta zergatik da hain garrantzitsua egungo egoera zein den jakitea? Azken finean, ezinezkoa eta irrealia izango zelako egun batetik bestera dena aldatzea edo aldaketa handi bat nabaritzea. Hortaz, generoen arteko desberdintasuna bermatzen duten aspektu txikiak identifikatzen baditugu, hala nola, hizkeran, komunikabideetan, mikro-matxismoetan... dauden txikikeriak identifikatzen baditugu, horietan aldaketak egiteko gai izango gara, eta horiek izan daitezke lehenengo hastapenak lortu nahi dugun aldaketa handi horretara iristeko.

Beraz, errealitate hori txikiei ezagutzera eramateko asmoarekin lan hau aurrera eraman dugu. Izan ere, gure ikasle, seme-alaba, haur eta nerabe guztiei eraman nahi diegun etorkizunean desberdintasuna ez litzatekeelako existitu beharko, ez generoen artean, ez arrazen artean, ezta edozein beste alorren artean ere. Baina esan dugun bezala, hori lortzeko aldaketa txiki asko eman behar dira eta hori lortzeko hezkuntza ezinbesteko erraminta da. Horregatik esaten dugu, hezkuntza sistemak eta horren barne dauden organo guztiek garrantzia eta pisu handia dutela berdintasunaren iraultza horretan. Hein handi batean, egoera hori posible egitea gure esku dago eta era berean, edozein arlotan berdintasuna lortzea, inor zapaldu gabe edozer gauzaren gainetik.

Auzi honetan eta gure ekarpena egiteko asmoz, gure zerbitzua zertan datzan laburki azalduko dugu. Praktikaldian zehar, gela bateko ikasleek momentuoro mutil-laguna bilatu behar nuela, ezkondu behar nintzela edo seme alabak izan behar nituela errepikatzen zidaten. Horrek, ikasleek garaiko emakumeen ideia barneratua zutela pentsatzea eragin zigun, eta emakumea indartzeko eta gizonekin berdintzeko zerbait lantzea ongi legokeela iruditu zitzaigun.

Hortaz, gure zerbitzuan, ikasleek genero desberdintasuna ematen den hiru eremu aztertuko dituzte: lanbideak, komunikabideak (katalogoak) eta kirola, hain zuzen ere eta horietan agertzen diren estereotipoak identifikatu beharko dituzte. Ondoren, hainbat hausnarketa eginez errealitateari eta benetan gertatu beharko litekeenari buruz hitz egingo dute, hutsuneak non dauden ikusteko eta hortik hausnarketa abiatu ahal izateko.

Laburbilduz, lan honetan ez dugu enfasia jartzeagatik jartzen, jorratu behar diren gai asko daude bere atzean, horregatik ematen diogu hainbeste garrantzia. Azken urtetan gizartean aldaketa nabarmenak egon dira eta gizona denon jabe izatetik emakume eta gizonen arteko botere partekatu batera ari gara pasatzen, baina oraindik ez da bidea bukatu. Ezin dugu ahaztu oraindik bide luze bat dugula gure aurretik eta lehen esan bezala aldaketa asko eman behar direla guztion eskubideak, askatasuna eta aukera berdinak izateko. Aldaketa guzti hauek, beste askok bezala, hezkuntzaren bidez bultzatu ahal dira, hortaz, eskolek koizientzia gidatzeko erreferentzia puntu bezala jokatu behar dute, dituzten erraminta eta baliabide desberdinak erabiliz, gizartean garapen positibo bat lortzeko.

## 2. MARKO TEORIKOA

Gaur egun genero berdintasunari buruz hitz egiten dugunean, argi izan behar dugu oraindik garatu behar den zerbait dela. Leku askotan somatzen dira emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak, eta txiki-txikitatik barneratzen ditugu nahi gabe helduen jarrerak. Lehen Hezkuntzan lan asko egin behar da arazo horri aurre egiteko, planteatutako eduki askok, ohartu gabe, desberdintasun horiek mantentzen dituztelako eta Gorputz Hezkuntzan, bereziki, nabarmentzekoa da. Egoera hori hobetzen saiatzeko ikasleen artean ikaskuntza zerbitzua martxan jartzea aukera egokia izango litzatekeela pentsatu da, baina zer da hori? Eta nola erlazionatu daiteke Gorputz Hezkuntzarekin edo generoarekin? Hurrengo lerroetan honi buruz arituko gara.

Mendiaren esanetan (2016: 20.or): “Ikaskuntza Zerbitzua edo I+Z ikasleen ikaskuntza hobetzea eta errealitatea eraldatzea saiatzen den metodologia berritzailea da. Ikasleek aurrera eraman behar dituzten jardura desberdinetan txertatzen da eta eskoletan ematen diren proposamen berritzaileekin konektatzen da, hala nola: konpetentzietan, proiektuetan edo arazoetan oinarritutako hezkuntza, ikaskuntza kooperatibo zein kolaboratiboa, adimen anitzak, elkarbizitza positiboa, gamifikazioa...”

Metodologia honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira (Mendia, 2016: 22.or):

- *Protagonismo aktiboa*→ Ikasleek izango dira momentuoro aktibo egongo direnak. Kasu honetan ikasle ni izan naiz, Lehen Hezkuntza Graduko ikaslea bainaiz eta ni izan bainaiz zerbitzua aurrera eraman duena
- *Zerbitzu solidarioa*→ Komunitate baten beharrak asetzerantz bideratuta dago, beraz, jardura zehatzak eta ikasleen ezaugarriei egokituak izango dira, hauek parte hartzeko eta arazoei irtenbide bat bilatzeko
- *Planifikatutako ikaskuntza*→ Proiektuak curriculumeko edukiak beteko ditu. Kasu honetan, curriculumak graduko da eta lan honen bidez, graduko konpetentzia profesionalak garatzeko baliagarria izan zait, eskuhartze bat programatu baitut, aurrera eraman baitut eta ebaluatu baitut

Mosquerak (2019) hurrengo esan zuen honi buruz: I+Z metodologian ikasleek edo irakasleek, bakoitzaren adinaren arabera, haien inguruan edo komunitatean hobetu ahal den behar bat identifikatzen dute, eta hori lortzeko edo irtenbide bat bilatzeko, proiektu bat



planteatu, antolatu eta aurrera eramaten dute. Honen bidez hainbat gaitasun garatzen dira, hala nola:

- Baloreak, enpatia, elkartasuna, konpromezua, tolerantzia
- Konpetentzia globala
- Konpetentzia soziala
- Inguruaren, komunitatearen eta haien beharren ezagutza
- Lankidetzeta eta denboraren kudeaketa
- Ikaskuntza holistikoa
- Saiakera bidezko ikasketa
- Ardura eta autonomia
- Hobetzeko edo egokitzeko zein akatsetatik ikasteko gaitasuna

Gorputz Hezkuntza I+Z-rekin batera lantzea oraindik oso ezaguna ez izan arren, oso egokia da metodologia hau aplikatu ahal izateko. Izan ere, duen praktikotasuna, pertsonen artean ematen diren interakzioak eta edukien moldakortasuna erraztasun handiak ematen dituzte horrelako proiektuak aurrera eraman ahal izateko (Capella et al., 2014).

Pujadas-en (1992) arabera, bizipenak ikertzeko metodo bat da. I+Zk egiten duena da istorio eta bizipen desberdinak aztertzea ondoren planteatutako proiektua aurrera eramateko. Gorputz Hezkuntzak istorio edo bizipen horiek batzeko erraztasunak eskaintzen dizkigu, aurretik esan bezala, oso praktikoa den ikasgai bat delako, horregatik izan daiteke hain baliagarria proiektu mota hauek martxan jartzeko.

Bestalde, Gil, Francisco eta Molinerrek (2012) Gorputz Hezkuntzako saioetan I+Z erabiltzea gomendatzen dute, ikasleei erronka berriak planteatu behar izatea suposatzen duela diotelako. Horrekin lortuko dena da, ikasleen inplikazio maila igotzea haien ikaskuntza irakaskuntza prozesuarekiko. Ikasteko metodologia tradizionalagoak erabiltzen badira, aldiz, hau ez da lortuko, gure kasuan ni naiz ikasle hori, inplikatu behar dena zerbitzu bat ematen GrALa inplikazio handiagoa eskatzen digulako.

Horrez gain, Ikaskuntza Zerbitzuan oinarritzen diren programak edo proiektuak Gorputz Hezkuntza arloan gaitasun praktikoak eta eduki multzo desberdinak bereganatzeko baliagarriak dira; kritikotasun maila edo ikasleen zuhurtasuna garatzeko, besteak beste (Capella et al., 2014). Hala, zerbitzu honekin esperientziaren bidez beste ezagutza batzuk bereganatuko ditugu eta horrelako gaitasunak garatzeko aukera ematen digu:

- Arazoen ebazpena
- Egokitzeko gaitasuna
- Ebaluazioa, Lehen Hezkuntzako ikasleen kexa eta kritikak onartzea eta lanak behar den bezala ebaluatzea
- Irakasleen autokritika, egindako akatsak aztertuz eta onartuz
- Lankidetzan koordinazioa eta elkarlaguntza garatzea ikastolako irakaslearekin
- Helburu didaktiko zein ludikoak kontuan hartzea
- Ikasle-irakasleen arteko komunikazioa bermatzea

Azkenik, hurrengo aipatu da Ikaskuntza Zerbitzuari buruz (Boneta, 2014, apud Calvo et al., 2019: 612.or):

“I+Z inolako arazorik gabe bat egin dezake Gorputz Hezkuntzan parte hartzen duten erlazio sozialen sistemarekin. Izan ere, Gorputz Hezkuntzako saio praktikoetan aurrera eramaten diren ekintzek; talde lana, ikasleen paper aktiboa, kooperazioa eta dibertsitatearekiko errespetua sustatzen dute”.

Gorputz Hezkuntza alde batera utziz, Ikaskuntza Zerbitzuak generoa lantzeko eskaintzen dizkigun baliabideak zeintzuk diren azertu nahi dugu. Horretarako, gure egunerokotasunean oso nabaria den arazoa aztertuko dugu, hain zuzen, sexismoa.

Gure bizitzan zehar agertzen diren alorrek eragina dute nerabeengan eta hauek beste pertsonekin harremantzeko eran, hauek dira horietako batzuk: publizitatea, komunikabide analogiko zein digitalak, berdinen arteko taldeak... Izan ere, ezarritako arau batzuen arabera izaera eta portaera batzuk bultzatzen dituzte femeninotzat edo maskulinotzat jotzen direnak, eta neskek eta mutilak jarrera desorekatuetan kokatzen dituzte. Beraz, berdintasun erreal baten barne aurreratu nahi da, eta horretarako Ikasuntza Zerbitzuaren bidez, behar hauek detektatu nahi dira eta arazo honi konponbide bat eman nahi zaio. Izan ere, prestakuntzan egindako ikaskuntzak kalitatea ematen dio eskaintzen den zerbitzuari, eta eskeinitako zerbitzuak zentzua ematen dio ikaskuntzari (Bosch, 2018-2019).

Dena den, konponbide bat ematen saiatu baino lehen, arazoa nondik datorren ezagutu behar dugu. Kasu honetan, aurretik aipatutako publizitatea, komunikabideak eta bestelako baliabideak genero desberdintasunean eragina dute, gizarteak ezartzen dituen estereotipoak indartzen dituztelako.

Colás eta Villaciervos-ek (2007: 37.or) hurrengo aipatu zuten generoa eta gizartearen eraginari buruz: “Generoa errepresentazio kulturala da, zeinak emakumezkoen zein gizonezkoen bizitzetan ideia, aurreiritzi, balore, interpretazio, arau, behar, mandatu eta debekuak markatzen dituen”.

Idea horrekin jarraituz, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak agertzen hasten dira ezaugarri, eginkizun zein jokabideetan. Urtetan zehar, emakumezkoak bigunak, zalatariak, zehatzak diren gauzetatik larrituak, unibertsoko arloengatik interesik gabekoak, sentimentalak, intuitiboak, erraietakoak... izan direla esan ohi da. Gizonezkoak aldiz, beste ezaugarri batzuekin definituak izan dira urte tarte horietan: indartsuak, familia buruak edo hau mantendu behar dutenak, irabazleak, zuzenak... Hau da, justu emakumezkoek esleitzen zaizkien aurkako ezaugarriak esleitzen zaizkie hauei. Izan ere, gizarte okzidentalean pisua duen estereotipoa hurrengo ideian oinarritzen da: gizona da indartsua eta emakumea aldiz, otzana (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

Aurretik aipatutako ezaugarri horietan sakontzen bagu, argi eta garbi ikusi dezakegu nola bizi garen gizarte patriarkalak ezaugarri horietan zerikusia izango duen eta subjektibotasun femeninoan eragingo duen. Izan ere, frankismo garaian umeez eskolan ikasten zuten gizonezkoa izatea inportanteagoa zela, eta emakumezkoa izatea, berriz, gutxiago izatea zela (Arenas, 2006: 78. or.). Gure gizartean hurrengo ezaugarriak lotzen ziren feminitatearekin: edertasuna, amodioarekiko aurretiko jarrera, amatasunari eta zaintzeari lotua egotea... eta hauek ezaugarri “ahulak” bezala antzeman ahal dira. Maskulinitatearekin aldiz, gizartean askoz ere hobeto ikusiak dauden ezaugarriak lotzen ziren, hala nola: gizonezkoek haien bizitza indartasunez, ezagutzekin, eta gaitasun nahikoekin aurre egiteko prestatuak egotea, baina era berean, haien sentimenduak errefusatzea.

Beraz, maskulinitate hegemonikoaren ereduetan eragingo duena maskulinitateari esleitutako ezaugarriak gizartean goraipatuak izatea da. Era berean, horrelako balorazioek lortzen dute mutilek indarra edo garrantzia hartzea, ezaugarri guzti hauek autonomian, autokonfiantzan edo indarran oinarritzen direlako. Aldiz, feminitateari esleituak daudenak, gizartean gutxietsiak egongo dira aurrekoekin konparatuz, eta horren ondorioz, sexu femeninoa ahulagoa edo ez hain autonomo bezala ikusiko da. Amurriok et al. (2009) dioenez, nahiz eta bizitzako arlo gehienetan emakumeek pausu bat aurrera egin duten, gure gizartean maskulinitateko eta feminitateko modelo tradizionalak oraindik irauten dute eta horrek eragiten du gizonen eta emakumeen artean egoera eta erlazio desberdintasuna ematea.

Hala, genero estereotipoek pertsona bakoitzaren izaera markatzen dute eta hauetako batzuk maskulinoz eta beste batzuk femeninoz hartzen direnez, izaeraren eraikitze hori mugatua dago (Hidalgo eta Almonacid, 2014: 87. or).

Esleitutako estereotipoek pertsonen jarrerak eta jokabideak baldintzatzen dituzte, izan ere, gizarteak haiengandik espero dituen rola ez datoz bat euren nortasunarekin. Horrela pixkanaka-pixkanaka pertsona bakoitza bere genero identitatea eta bere sexualitatea eraikitzen joango da, sozializazio prozesuak gainditzen dituen bitartean. Nolanahi ere, estereotipoek urteetan zehar errealitatea distortsionatu dute, izan ere, gizarte guztietan emakumeek gizonenganako bizi izan duten dependentzia eta desberdintasuna justifikatzeko erabiliak dira (Amurrio et al., 2009).

Oro har, generoen arteko desberdintasuna soziokulturalki eraikitako estereotipoengatik ematen da, hauek arau sozialak balira bezala hartzen direlako eta gizakien jarreretan eragiten dutelako. Horregatik, estereotipoak eraikuntza sozialak direla esaten da eta egoera desberdinen aurrean jarrera bat edo bestea izateak eragingo dute, emaitzari esanahi desberdinak emanez.

Amurriok et al. (2009) dioenez, genero estereotipoek emakumeek autoestimu baxua izatea eragiten dute, horren ondorioz, segurtasun falta, dependentzia eta autonomia garatzeko zailtasunak ematen dira. Hortaz, genero estereotipo horiek deseraikitze nahian, eskolazte-prozesuak lan handia egiten du. Jarduera eta ekintza pedagogikoak eginez, pertsona bakoitzak hartzen duen jarreretatik eta errolaz ohartu ahal garelako. Horrela, diskriminazioa areagotzen duten jokoak eta diskurtsoak identifikatu ahal dira eta horiek landuta eta murrizteko enfasia jarrita, generotik abiatutako praktika eta jarduteko modu berriak eratzeko aukera emango da eskola-erakundeetan.

Genero-estereotipoei buruz jaso ditugun azken baieztapenak aurrekoekin bat datoz, Colás eta Villaciervos-ek (2007: 38. or) aipatzen duten moduan: "Genero-estereotipoek subjektu bakoitzak norberaren existentzia artikulatzeko edo eraikitze oinarria dira, eta kulturak esleitutako identitate-kode eta kategorietatik abiatzen dira".

Genero-estereotipoak ikuspuntu desberdin askotatik aztertu ahal dira, eta pertsona bakoitzaren testuinguru, hezkuntza eta bizilekuaren arabera desberdinak izan daitezke leku batean edo bestean. Normalean, pertsona bakoitzak haurtzarotik hautematen ditu genero estereotipoak, eta gizarteak aldatzen den heinean hauek ere aldatzen joaten dira. Estereotipoak barneratzean, pertsona bakoitzak bere pentsamendu, ekintza, jarrera,

errealitatearen eraikuntza... desberdinak izango ditu, bakoitzak duen genero pertzepzioaz baldintzatuak edo gidatuak egongo direnak. Azken finean, Espinarrek (2009: 18.or) dioen moduan: "Ikaskuntza kulturalaren prozesuaren bidez pertsona bakoitzak bere sexuari esleitutako arau sozialak barneratuko ditu, bere identitatea definituko dituen elementuetan bilakatuz".

Aurretik aipatu dugu pertsona bakoitzak hazi den testuinguruaren arabera estereotipoak aldatzen direla. Estereotipo hauek talde sozialak modu orokorrean definitzeko erabiltzen diren ezaugarriak dira, eta generoari dagokionez, emakumezkoei edo gizonezkoei haien sexuaren arabera esleitzen zaizkien ezaugarriak dira. Beraz, generoaren errepresentazio kulturalak estereotipoen bidez manifestatzen direla esan dezakegu.

Gorputz Hezkuntzako saioetan zentratzen bagara genero desberdintasunak argi eta garbi antzeman daitezke. Ikasleen arteko interakzioengatik hurrek era espontaneo batean jokatuko dute, eta horri esker, modu ludiko baten bidez sortzeko eta birsortzeko aukera izango dute. Baliteke oraindik ere, hezkuntza-esparrua inbaditzen duen ikuspegi androzentriko bat egotea familia-hezkuntzan, genero-estereotipoak errepikatzen baitira eta sozialki maskulinitzat hartzen diren balioak sustatzen baitira, neskak saioetatik kanpo utzita, emakumeen gaitasunak gutxietsi direlako (Monasterio et al., 2011).

Beraz, orain arte ikusi dugun informazioa aztertzen badugu, momentuko testuinguruaren arabera estereotipoak ez direla berdin-berdinak izango edo ez dutela eragin berdina edukiko antzeman dezakegu. Faktore desberdinen arabera, eragin bat edo bestea izango dute pertsonengan eta gizartean. Blández, Fernández eta Sierrak (2007: 2.or) pertsona bakoitzaren testuinguruan eragina izan dezaketen hiru faktore hauek bereizten dituzte:

1. **Pertsonalak**→ Alde batetik, sinesmen tradizionalak irauten jarraitzen dute. Hauek, kirol-jarduera fisikoa praktikatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasunetan eta jarduera konkretu batzuei lotutako ezaugarrietan antzeman daitezke. Hala nola mutilen "agresibitatea" eta "lehiaketa", nesken "lankidetzaren" eta "lasaitasun" handiagoaren aurrean. Ezaugarri instrumentalak (maskulinitatearekin identifikatzen direnak) zein afektiboak (feminitatearekin identifikatzen direnak) jarduera fisikoa eta kirolaren usteekin bat egiten jarraitzen dute. Mutilei indarra, erresistentzia, arriskua eta agresibitatea beharrezkoak diren jarduerak esleitzen zaizkie, neskei aldiz, erritmoa, adierazpena, malgutasuna eta koordinazioa beharrezkoak direnak.

2. **Jokabide-faktoreak**→ Nahiz eta biek (neskek eta mutilek) berdin adierazten duten jarduera fisikoarekiko interesa dutela, mutilek neskek baino jarduera fisiko gehiago egiten dutela hautematen dute ikasleek, eta inguruabar hori, besteak beste, jardueren eskaintzak baldintzatu dezake; izan ere, bai eskola-eremuan, bai eskolaz kanpoan, kirol "maskulinoak" nagusitzen dira oraindik ere. Bestalde, nerabeek gauzatzen dituzten kirol-jarduera fisikoen praktikaren arabera, neskak nagusiki banakako jardueretan kokatzen dira, kasu askotan osagai estetiko handiarekin, mutilek talde- eta oposizio-jardueretan duten atxikipen handiagoaren aurrean.
  
3. **Ingurune-faktoreak**→ Eragin handia dute jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako genero-desberdintasunetan eta aukera-desberdintasunetan. Neskek zailtasun handiak dituzte espazio maskulinokotzat jotzen diren jarduerak egiteko, edo alderantziz, bai jarduera horietarako sarbidea zuzenean ixten zaielako, bai senideen eta lagunen disuasioarekin edo aurkakotasunarekin topo egiten dutelako. Oztopo horiek gainditzea eta jarduera egitea lortzen duten neska-mutilek inguruko pertsonen adierazitako komentario sexistak eta mespretxuzkoak izaten dituzte, eta kirol edo jarduera mota horretan parte hartzea gaitzesteko eta arbuiatzeko giro inplizitua gainditu behar dute.

Estereotipoak Gorputz Hezkuntzan azaleratzen diren bezala, horiek apurtzeko aukera desberdinak eskeintzen dizkigu ikasgai honek. Duen praktikotasunagatik, generoa lantzeko eta estereotipoak deseraikitzeke ariketa eta proiektu mota asko aurrera eraman ahal izango ditugu. Hauek dira proposamen batzuk hori lortzeko: emakumeen irudiak ugaritu eta metodologia parte-hartzaileak bultzatu, jardueren ikuspegia aldatu, eta ikasteari lehentasuna ematea irabaztearen aurretik, aisialdirako eta erritmo-jarduera mistoak zabaldu... (Bizkarra eta Garay, 2014).

Izan ere, Gorputz Hezkuntzak izan behar duen helburuetako bat pertsona oro gizartean integratzen saiatzea da, eskolaren bitartez; oreka psikofisikoa, garapen pertsonala, aisialdiaren disfrutea, osasuna hobetzea... lortzeko. Honek, Gorputz Hezkuntzaren berkontextualizazio batera eramaten gaitu, helburuena, edukiena eta metodologiarena bereziki (Piedra et al., 2014).

Gorputza eta mugimenduarekiko esperientziak Gorputz Hezkuntzako oinarrizko erramintak dira, horregatik, estereotipoak, rolak eta saio desberdinetan eman ahal diren generoaren usteak lantzeko irakasgai egokia da. Irakasgai honen irakasleek, edo ikasleen hezitze prozesuan eragina duen edonork, berdintasunean heitzeko ardura du. Beraz,

hezkuntza-eragile gisa duten erantzukizuna onartuta, irakasleek aukera-berdintasuna lortzeko lan egin behar dute, haien ikasitakoa ere desikasiz, beren sinesmenak eta aurreiritziak irakasle gisa duten jardunari aurre egiteko (Talbot, 1993).

### 3. HELBURUAK

Lanarekin lortu nahi duguna da ikasleek ohartzea genero desberdintasuna oraindik dagoela, eta estereotipoek bereziki, desberdintasun honetan eragiten dutela.

Generoaren artean ematen diren desberdintasunak lantzen, ikasleek hobetzeko eta aldatzeko dauden gauzetaz ohartuko dira eta horrela ere, haien jakingo dute berdintasunera iritsi behar dela eta hori nahi dugula.

Hortaz aparte, jarduera edo dinamika bakoitzarekin ikasleek zerbaitetaz konturatzea dugu helburu, hala nola:

- Lehen Hezkuntzako ikasleek estereotipoen buruz dituzten aurreiritziak ezagutzea
- Lehen Hezkuntzako ikasleek txikitatik sartzen dizkiguten iritziaz eta estereotipoetaz konturatzea eta nahi gabe egiten dugun bereizketaz ohartzea
- Lehen Hezkuntzako ikasleek emakumeen kirol munduan duten paperaz ohartzea eta zonaldeko emakume kirolariak ezagutzea
- Lehen Hezkuntzako ikasleek besteen egoeretan jartzen ikastea, enpatia lantzen jakitea eta bidegabekoak diren egoerei buruz pentsaraztea

Esan behar dugu azpi-helburu hauek landuz eta prozesu luze bat jarraituz lortu nahi duguna honako hau dela: ikasleek genero berdintasunera iristeko jakintzak eraikitzea eta desberdintasunak murrizteko nahian ekitea proposamen desberdinak planteatuz. Betiere, hasieran aipatutako gure helburu nagusia ahaztu gabe, ikasleek ohartzea generoen arteko desberdintasuna oraindik dagoela.

Zergatik lortu nahi dugu hau? Praktikaldian zehar ikasleek komentario ez oso aproposak egin zituztelako, emakumearen menpekotasuna gizonarekiko agerian uzten zituztenak. Horrek, gaur egun ematen den genero desberdintasuna oraindik nabariagoa izatea egiten du. Horregatik, aproposa ikusi genuen ikasleei erakustea benetan ematen den desberdintasun egoera zein den, benetan dagoen arazoaz ohartzeko eta arazo hori aldatu behar dela konturatzeko.

Beraz, hasiera-hasieratik hasten eta desberdintasun hau nondik datorren aztertzen ikasleek genero desberdintasuna oraindik dagoelaz ohartuko dira eta ondoren, beste dinamika eta jarduera batzuen bitartez, informazioa bereganatuko dute azkenean aldaketa txikiak eman ahal izateko edo haien lehenengo hastapenak markatu ahal izateko.

Horrela ere, ikasleek prozesu honen bitartez, errespetua, berdintasuna, berdinen arteko laguntza... bezalako baloreetan hezitzen ikasiko dute. Azken finean, errespetua edozer gauzaren oinarria delako, eta ezinbestekoa delako testuinguru apropos eta atsegin batean lan egin eta jardun ahal izateko.

Gainera, egindako lanketa honi esker ikasleen ikasketa-prozesua aztertzeke aukera izango dugu, haien aurreideiak aldatu diren ala ez ikusiko dugu eta horrek ikasleekin egindako lana era positibo batean edo negatibo batean eragin duen ikusteko lagunduko digu. Horrela, planteatutako plangintza gure hasierako helburuetara eta ikasleen beharretara moldatu den ikusiko dugu eta hortik zenbait gauza ikasteko abiapuntua emango zaigu.

Azkenik, esku hartzearekin erlazionatuak dauden helburuak alde batera uzten baditugu eta nire burua eta zerbitzua lotzen duten helburuak aztertzen baditugu, hauek aurkitu ditzakegu:

- Asistentzia totala izatea
- Saioen denbora ongi kontrolatzea
- Ikasleen interesa pizten duten jarduerak planteatzea
- Ikasleek gogotsu ekiteko jarrera plazaratzea
- Jarduerako hobetzeko asmoz momentuak aldaketa txikiak egiteko gaitasuna izatea
- Saioak erlazionatzea edo haien artean lotura izatea

## 4. METODOA

### 4.1 Antolakuntza

Lehenengo taula honetan lan guztian zahar jarraitutako pausuak zeintzuk izan diren ikusteko aukera izango dugu; bilerak, zuzenketak, tutore eta eskolarekin kontaktua, landa-lanaren



hasiera... Dena den, hilabete hauetan zehar bilera eta formakuntza saioak izan ditugu gainontzeko ikasle eta irakasle desberdinekin, taulan agertzen ez direnak.

1. taula: Lanaren prozesua

DATA	HELBURUA	EGINDAKOA
Urriak 20, tutorearekin bilera	Lanaren gaia eta planteamendua argitzea	Lanaren gaia adostu eta autore eta aldizkari desberdinen informazioa eskeini
Urriak 22, eskolarekin kontaktua	Eskolako zuzendariarekin kontaktuan jartzea	Ikaskuntza zerbitzua egiteko asmoa plazaratu eta posible izango den galdetu
Azaroak 13, zerbitzu fitxa	Zerbitzu fitxa bidaltzea	Zerbitzuaren hasierako ideia tutoreari bidali proposamena ikusteko
Otsailak 15, feedbacka	Marko teorikoa zuzentzea	Marko teorikoko zuzenketak ikusi eta behar den heinean berridatzi
Otsaileko erdialde-amaiera	Zerbitzua guztiz prestatzea	Praktikaldian zehar ikas-taldea ezagutu eta haiei egokitutako dinamika desberdinak prestatu
Martxoak 23, zerbitzua	Praktikaldian zerbitzua aurrera eramaten hastea	Hurrengo egunetan bi geletan planteatutako saioak aurrera eraman
Martxoak 30, tutorearekin bilera	GrAL-eko hurrengo pausuak zeintzuk diren jakitea	Zerbitzuan egindakoari buruz hitz egin eta hurrengo pausuak azaldu
Apirilak 19, feedbacka	Orain arte egindakoa irakurtzea	Zuzenketak egin eta behar izandakoa aldatu
Maiatzak 12, feedbacka	Lana indartu eta azken pausuak egin	Zuzenketak egin eta behar izandakoa aldatu
Ekainak 6, feedbacka	Lana amaitu	Lanari azken zertzeladak eman eta zuzenketa txikiak egin

Bigarren taulan, prestatutako landa-lana edo esku-hartzea era simple batean agertzen da, nola eraman dugun aurrera, zer eta zein helbururekin egin dugun, zer behar izan dugun...

2. taula: esku-hartzearen planifikazioa

DATA	ZEREGINA	HELBURUA	MATERIALA
Martxoak 23, asteartea	-Bi galdetegi bete -Taldea esandakoaren marrazki bat egin	-Ikasleek estereotipo zein genero desberdintasunari buruz dituzten aurreiritzia jakitea	-Galdetegiak -Paper handiak -Margoak
Martxoak 24, asteazkena	-Lanbide desberdinak sailkatu -Hausnarketa egin	-Ikasleek lanbideetan ematen diren desberdintasunetaz ohartzea	-Post-itak -Margoak -Arbela
Martxoak 25, osteguna	-Katalogoak aztertu -Desberdintasunak komentatu -Hausnarketa egin	-Ikasleek ohartzea sartzen dizkiguten estereotipoetaz	-Jostailuzko katalogoa (material digitala)
Martxoak 26-29, ostirala eta astelehena	-Kirolari erreferenteak partekatu -Gertatutakoari buruz hausnartu -Emakume kirolarien bilduma egin	-Emakume kirolariak ezagutzea eta haiekiko interesa piztea	-Bideoa (material digitala) -Emakume kirolarien informazioa -Koloretako papera -Margoak
Martxoak 30, asteartea	-Istoriatxo batzuk entzun -Egoerak aztertu eta gertatutakoa kontatu -Haien sentimenduak eta argudioak plazaratu	-Enpatia lantzea -Estereotipoek eragiten diguten sentimenduetaz ohartzea	-Istoriatxoak -Egin beharreko galderak

## 4.2 Partaideak eta testuingurua

Planteatutako zerbitzua Lizarra Ikastolan eraman genuen aurrera, Lehen Hezkuntzako 2. mailako bi lerroetan hain zuzen ere. Lizarra Ikastola, Lizarran (Nafarroa) kokatzen den eskola ez da oso handia da, duela 50 urte baino gehiago (1970. urtean) jarri zen abian 25 ikaslerekin, gaur egun, 700 ikasle inguru ikasten dute bertan; haurtzaindegiko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko ikasle guztiak batuz.

Partaideko eskola honetako familien egoera sozio-ekonomikoa ona dela esan dezakegu. Ikastetxearen aniztasunari begira, esan beharra dago eskola inklusibo bat dela, Lizarra

Ikastola akonfesionala eta politika alderdikeria orotatik askea da. Helburua da ikasleek oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatzea, elkartasun, sentikortasun, erantzunkizun eta eskuzabaltasun gaitasunak garatzeko baloreetan oinarrituz gizartean era onuragarrian jardun dezaten, bestelako desberdintasunak alde batera utziz. Eguneroko zereginari hezkuntza horren ezaugarriak atxikitzeko, oinarri orokor bat formulatzen da, eta horrek berekin dakartza eskola-elkartearen oinarri orientatzaile batzuk eta jarduera eta konpromiso batzuk.

Aurten Lizarra Ikastolan “Munduari begira” ikasgai berria martxa jarri dute, identitate, adimen, gorputz, emozio eta sozialak diren eremuak lantzeko eta garatzeko nahian. Ikasgai berri honekin lortu nahi dituzten helburuetako batzuk hurrengoak dira:

- Ikasleek bere dohaiak ezagutzea
- Ikasleek bere sentimenduetaz jabetzea eta hauek onartzea
- Ikasleek gelako dinamikan garaiz eta egoki parte hartzea
- Ikasleek bizikidetzarako jarraibideak errespetatzea eta arau horiek gogorarazten dituzten pertsonak ondo hartzea
- Ikasleek mutilen eta nesken arteko tratua ona izaten laguntzea
- Ikasleek taldean lan egiten jakitea eta besteen lana aitortzea
- Ikasleek bere ideiak eta sentimenduak era egokian adieraztea
- Ikasleek hitz egiten diotenean arretaz entzutea
- Ikasleek jarrera positiboak zoriontzen eta eskertzen jakitea
- Ikasleek besteen sentimenduetaz ohartzea

Ikasgai hau, gehienbat elkarbizitza, errespetua eta balioak garatzean oinarritzen da, hortaz aparte “berdintasuna” deitzen den atal bat ere lantzen du eta atal horretan zehazki sartu genuen gure zerbitzua. Generoarekin eta estereotipoekin lotura eginez eta batez ere generoen artean eman behar den berdintasuna laduz.

Aurretik esan bezala, gure partaideek 2. mailako ikasleak ziren, 7 eta 8 urte bitarteko haurrak zehazki. Bi geletan eraman genuen aurrera esku-hartzea: 2.A gelan 19 ikasle zeuden, 12 neska eta 7 mutil. 2.B gela aldiz, 20 ikasleengatik zegoen osatua, zeinetatik 13k neskak eta 7k mutilak ziren. Argi eta garbi ikusten da bi geletan neska kopurua altuagoa zela eta horrek zerikusia edo eragina izan zezakeen egindako jardueretan. Dena den, esan beharra dago galdetegiak pasa genituen egunean ez zeudela ikasle guztiak, beraz, 2.A gelan 18 ikaslek hartu zuten parte, eta 2.B gelan 16.

Saio gehienak aurrera eramaterako orduan bi geletako tutoreek ere gelan bertan egon ziren, nahiz eta momentu batzuetan gelatik atera ziren. Dena den, momentuoro nire esku utzi zuten eskuhartze guztia, haiek laguntza eskeini zidaten edozein momentuan behar izatekotan, baino hasiera batean behatzaile moduan egon ziren.

Esan beharra dago, nahiz eta praktikaldian egindako esku-hartzea izan, Practicumarekin ez duela zerikusirik. Nire Practicum III-rako Gorputz Hezkuntzako Unitate Didaktiko bat prestatu nuen eta hau borondatezko lan bat izan zen. Irakasle tutorearekin genero perspektiba lantzeko ideari buruz hitz egin eta gero, saioak bere plangintza barruan sartzea erabaki genuen, gela orduetan egiteko. Baina errepikatzen nuen praktikatik kanpo geratzen den esku-hartzea zela.

### 4.3 Prozedura

Gure esku-hartzean genero estereotipoak lantzea taldea ezagutu aurretik aukeratu genuen. Generoen arteko desberdintasuna gure egunerokotasunean pil-pilean dagoen gaia da, eta eskoletan hori lantzea ezinbestekoa zela uste genuen. Azken finean, berdintasunean hezitzea da hezkuntzaren helburuetako bat, eta horretarako genero desberdintasunak non eta zergatik ematen ziren jakitea oso garrantzitsua zen.

Hori izan zen gure abiapuntua, aurrerago, Practicum III-a hastean, irakasle tutorearekin hitz egin genuen, eta gelan horrelako esku-hartze bat egitea ongi legokeela esan zigun, beraz, martxan jarri ginen. Azkenik, ikastaldea gehiago ezagutzeko; partaideak, adina, interesak, energia... jarduera motak nolakoak izan beharko ziren pentsatzen hasi ginen.

Planteatutako zerbitzua bost saiotan banatzen zen, eta saio bakoitzean genero estereotipoekin zerikusia zuen zerbaite landu zen, ikasleek generoen arteko desberdintasunari buruz jabetzeko asmotan.

**Lehenengo saioan** gure intentzioa ikasleek genero estereotipoei buruz zituzten aurreiritziak zeintzuk ziren jakitea zen, eta horretarako saioa bi zatitan banatu zen:

1. *zatia* → *Ikasleei bi galdegegi desberdin pasa genizkien*

Lehenengoan, hainbat esaldi agertzen ziren, emakumeen eta gizonen rolekin zerikusia zituztenak. Ikasleek esaldiak irakurtzean hauekin ados edo desados zeuden esan behar zuten, X batekin markatuta.

Bigarren galdetegian etxean betetzen zituzten ekintzak edo etxeko lanak agertzen ziren. Ikasleek etxean norekin bizi diren idatzi behar zuten haien fitxetan, eta haien etxeetan eginkizun bakoitza nork betetzen duen esan behar zuten, berriz ere, X batekin markatuta.

Bi galdetegi hauen arteko lotura egitearen arrazoi nagusiena zen umeek haien etxeetan ikusten zutena gero haien pentsatzeko eran edo usteetan eragina zuen jakitea.

2. *zatia*→ *Ikasleei neska edo mutil baten marrazkia egiteko eskatu genien*

Ikasleek taldeetan banatu genituen: talde batzuetan guztiak neskak ziren, beste batzuetan guztiak mutilak eta beste batzuetan nahastuak zeuden. Talde bakoitzari marrazki bat egiteko eskatu genien: 2 haur, neska edo mutila eta 2 heldu, neska edo mutila. Marrazki bakoitzean agertzen zen pertsona, jantzita, koloreztatua eta gustuko zuten edo normalean aritzen ziren objektuekin agertzea eskatu genien. Horrela, haien aurreideiak zeintzuk ziren jakiteko eta jada estereotipatuak zeuden ikusteko.

**Bigarren saioan** lanbide desberdinak landu genituen, ikasleek lanbideak generoaren arabera banatzen zituzten ala ez jakiteko, eta horretarako, saioa beste bi zatitan banatu genuen:

1. *zatia*→ *Ikasleek lanbideak sailkatu zituzten*

Ikasle bakoitzari 9 pos-it eman genizkien eta arbela hiru zutabe desberdinetan banatu genuen: emakumeak, gizonak eta biak. Ozen lanbide desberdinak esan genituen, banan banan, eta ikasleek haien post-itetan lanbide hori idatzi zuten. Ondoren, post-ita (lanbidearekin) zutabe batean kokatu behar zuten. Hau da, esandako lanbidea emakumeen lanbide bat zela uste bazuten, zutabe horretan itsasi behar zuten, eta horrela guztiekin.

2. *zatia*→ *Hausnarketa*

Ikasleekin arbela nola geratu zen begiratu genuen eta horri buruz hitz egiten aritu ginen, eta gainera hainbat galdera egin genizkien. Galderak honako hauek izan ziren: Zergatik egin dugu hau? Uste duzue lanbide batzuk ezin dituztela pertsona guztiak egin? Zein lanbide agertzen dira gehiago emakumeen zutabeen? Eta gizonen zutabeen? Zergatik uste duzue egin duzuela aukeraketa hori?

**Hirugarren saioa** aurreko saioko galderei erantzun batzuk emateko prestatu genuen. Honetan, era simple baten bidez, txikitatik barneratzen ditugun estereotipoek gure ideietan eragina duten ala ez ikusiko genuen, etengabeko analisi eta hausnarketa bat eginez. Ikasleen motibazioa mantentzeko, jostailuzko katalogo bat hartu genuen horren analisia egiteko. Katalogo horren orrialde desberdinak behatu genituen, agertzen ziren jostailuak, pertsonak, koloreak... Eta agertzen ziren desberdintasunetaz ohartzeaz gain, horren zergatien inguruan hausnarketa bat egin genuen eta ikasleek pentsatzen zutena plazaratzeko aukera izan zuten.

**Laugarren saioan** kirolaren munduan sartu ginen, eta honetan ere, generoen arteko desberdintasuna zegoela konturatzeko aukera izan genuen.

1. *zatia*→ *Erreferenteak*

Saioari hasiera emateko ikasleek ezagutzen zituzten kirolari ospetsuak zeintzuk ziren esan behar zuten, haien erreferenteak, eta gehienak gizonezkoak zirela ikustean, horren zergatia galdetu genien.

2. *zatia*→ *Emakume kirolariak*

Ikasleek emakume kirolari gehiago ezagutzeko intentzioarekin, surfista baten bideo bat jarri genien, non bere ibilbidea kontatzen zuen eta hori komentatu genuen. Ondoren, beste emakume kirolari batzuk aipatu genituen eta orri handi batean idazteko eta bilduma bat osatzeko esan genien.

Azkenik, **bostgarren saioan**, ikasleei bi egoera desberdin planteatu genizkien, ez ziren egoera errealak baina argi eta garbi ikusten zen genero desberdintasuna ematen zela. Ikasleei egoera hauek ongi ala gaizki zeuden galdetu genien. Horrez gain, enpatia landu genuen eta haiek horrelako egoera baten aurrean nola sentituko ziren esan zuten.

## 4.4 Informazioa jasotzeko tresnak

Lehenengo saioaren aurreideien emaitzak jasotzeko bi galdetegi desberdin pasa genituen, ikasleek pentsatzen zutena jakiteko eta ondoren emaitza horiek modu desberdinetan kontrastatzeko.

Gainotzeko saioetan egindako hausnarketen informazioa biltzeko eguneroko bat erabili nuen, non ikasleek esandakoa apuntatu nuen. Praktiketara beti esan ziguten oso egokia dela eguneroko bat egitea, egun bakoitzean ematen ziren egoera bereziak apuntatzeko eta gero oroitzeko, horregatik, egunerokoa lan honetarako ere erabiltzea aukera ona izango zela pentsatu genuen.

Horrez gain, egindako jarduera batzuen emaitzei argazkiak atera genizkien, hain zuzen, lehenengo saioan egindako marrazkiei eta bigarren saioan egindako post-it-en jarduerari, adibidez. Horrela ikasleek egindakoa gertatu zen bezala erakusteko aukera izango genuen.


## 4.5 Jasotako informazioa tratatzeko prozedura

Alde batetik, galdetegiaren emaitzak antolatzeko excel programa erabili genuen.

Bestetik, ikasleek egindako hausnarketa eta hitzaldietan esandakoa jasotzeko eta emaitza horiek aztertzeko sistema kategorial bat osatu genuen, eskema baten bidez. Sistema kategoriala lan baten emaitzak metodo induktiboaren bidez (hitzaldiak, elkarrizketak, asanbladak...) lortzen direnean erabiltzen den prozedura edo tresna da. Lortutako informazio hori dimentsioetan, kategorietan eta azpi-kategorietan sailkatu genuen, era jerarkiko batean.

Gure kasuan, landutako gai nagusiak eta azpigaiak agertzen ziren, eta ikasleek azpigai horietako saio eta jarduera bakoitzean emakume eta gizonen arteko desberdintasunari buruz esan zutena plasmaturik agertzen zen. Horrez gain, ikasleek plazaratu zituzten ideia, sentimendu eta argudio desberdinak agertzen ziren. Beraz, gai nagusiak dimentsioei egingo zieten erreferentzia, azpi-gaiak kategoriei eta ikasleek esandakoa eta plazaratutakoa azpi-kategoriei edo indikatzaileei. Beraz, horrelako eskema planteatu genuen gure emaitzak biltzeko:

1. mapa kontzeptuala: sistema kategoriala



## 5. EMAITZAK

Laugarren taulan ikasleek aukera bat edo bestea markatu behar zuten eta hurrengo zutabeetan gela bakoitzeko ikasleek aukeratutako emaitzak ikusi daitezke:

4. taula: estereotipoen galdetegiaren emaitzak

EGINDAKO GALDERAK	2.A		2.B	
	ADOS	DESADOS	ADOS	DESADOS
1. Gizonezkoek lan garrantzitsuagoa izan behar dute familia mantentzeko	1	17	8	8
2. Emakumezkoek lan batzuk daude esleituak, eta gizonezkoek beste batzuk	1	17	2	14



3. Gizonezkoek emakume askorekin atera daitezke, baina ez alderantziz	0	18	0	16
4. Gizonezkoek ezin dute negarrik egin	0	18	0	16
5. Kirol batzuk emakumeentzat dira eta beste batzuk gizonentzat	0	18	0	16
6. Etxeko lanak, normalean, emakumeek betetzeko dira	0	18	1	15
7. Normalean emakumeek zaindu behar dituzte haurrak	0	18	8	8
8. Emakumeek kontuz ibili behar dira haien janzkerarekin	0	18	1	15
9. Ongi dago zerbait kendu dizun pertsona bati jotzea edo errespetua ez izatea	0	18	0	16

Galdetegiaren emaitzetan argi eta garbi ikusten da ikasle gehienek oso argi zutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eman behar dela, guztiok eskubide berdinak izan behar ditugula eta balio bera dugula. Hala ere, 2.A gelako ikasle batzuk guztiz estereotipatuak dauden bi esaldiekin ados daudela ikustarazi da: **1. eta 7. esaldiak**, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa "indartzen" zuten bi esaldi. Nahiz eta soilik gelaren erdia izan, arreta deitzen zuen datua da, izan ere, lehen aipatu dugun moduan, orokorrean barneratuta zutelako generoaren arteko bereizketak ez zirela egin behar.

Hurrek haien ideiak eta jakintzak eraikitzen zituztenean bi faktore nagusi zuten ezinbesteko eragina: bizi diren testuingurua eta pertsonekin dituzten erlazioak. Txikiak garenean eskolan eta etxean familiarekin pasatzen dugu denbora gehiena, beraz, hori da gure testuingurua eta gure harremanak. Horregatik, lehenengo eta bigarren galdetegiak erlazonatuta daude. Hau da, lehenengo galdetegian eraikita dituzten ideia batzuk plazaratu zituzten, eta bigarrenarekin, ideia horiek haien testuinguruetan ikusten eta bizi zutenarekin erlazioa zuten jakin nahi genuen.

Bostgarren taula honetan ikasleek aukera bat baino gehiago markatzeko aukera zuten (askotan etxeko lan bera pertsona bat baino gehiago egiten zuelako). Hortaz, aita eta amaren artean desberdintasun nabariena zituzten ekintzak aukeratu genituen ondorengo grafikoak egiteko eta aztertzeko. Hona hemen ikasleen emaitzak:

5. taula: etxeke lanen galdetegiaren emaitzak


ETXEKO LANAK	2.A				2.B			
	NI	AMA	AITA	ANAI ARREBAK	NI	AMA	AITA	ANAI ARREBAK
1. Platerrak garbitu, garbigailua jarri	3	16	14		2	15	12	
2. Janaria prestatu		18	14			15	12	
3. Mahaia jarri eta bildu	4	15	13	4	3	15	12	
4. Etxerako lanekin lagundu	4	12	12	2	4	10	7	4
5. Hurrekin jolastu	12	10	9	4	8	11	4	8
6. Oheak egin	9	8	1		9	11	8	
7. Etxea garbitu		15	13			16	7	
8. Erosketak egin	3	18	13		4	15	14	
9. Zakarra bota	3	16	18		3	12	12	
10. Etxean apurtzen dena konpondu		6	18			6	16	
11. Arropa garbitu, plantxatu		18	8			16	7	

Orokorrean etxean elkarbizitzen diren kideen artean etxeke lanak nahiko sakabanatuta daude. Ikasleei ardura desberdinak esleitzen zaizkie, hurrekin jolastea, haien oheak egitea edo mahaia jartzen eta kentzen laguntzea gehienbat. Hori oso ongi dago, azkenean horrela ere haien lana etxean baliagarria dela ikusteko aukera dutelako. Horrez gain, etxeke lanekin laguntzea ere haien edo haien anai arrebek esku uzten den eginkizun bat dela esaten zuten eta honi garrantzia ematea ere ongi legoke, hurrek haien lanarekin asebetetzea sentitzeko.

Dena den, kasu gehienetan ama eta aitaren artean aukeratu behar bada etxeke lan hori nork egiten duen adosteko, amaren zenbakia egiten du gora. Kasu batzuetan besteetan


baino nabariagoa da, baina badaude ekintza batzuk zeinetan goraiatzekoa da egiten den bereizketa. Hau hobeto ikusteko hurrengo grafikoak aztertuko ditugu:

1. grafikoa: etxeko lanen galdetegiko 7. esaldia



Lehenengo grafiko honetan ikusten da nola ikasleen etxeetan, normalean, oraindik emakumeak diren etxeak garbitzen dituztenak, erdia baino gehiago. Gainera, soilik 2.B gelako datuak aztertzen baditugu, desberdintasun hori oraindik nabariagoa da.


2. grafikoa: etxeko lanen galdetegiko 10. esaldia



Kasu honetan antzeman dezakeguna da ekintza honetan beti aitak parte hartzen duela, eta kasu batzuetan amak ere agertzen dira. Baina datuetara joaten bagara, 18-tik 18 eta 16-tik 16 aitak konpontzen dituzte etxean apurtzen diren gauzak. Bigarren grafikoan ere ikusi dezakegu nola aitek hartzen duten zati handiena.

### 3. grafikoa: etxeko lanen galdetegiko 11. esaldia

#### Arropa garbitu eta plantxatu



Aurreko kasuan bezala, hirugarren grafiko honetan ere gure ikasleen gurasoen totalak agertzen zaizkigu emaitzak begiratzeko baditugu, 18-tik 18 eta 16-tik 16, baina oraingoan amekin. Etxean arropa garbitzearen rola emakumeek hartzen dutela berriz ere, erdia baino askoz gehiago, eta kasu batzuetan soilik azaltzen dira emakumeak lan hau betetzeko.

Dena den, egia da galdetegien hauen bidez ikasleek emandako emaitzak nahiko positiboak direla, azalera uste dutelako badakitela pertsona guztiak berdinak garela eta eskubide eta aukera berdinak izan behar ditugula. Baina saioaren bigarren zatian berreskuratu ditugun marrazkiak aztertzen baditugu, ikasleen subkonszientean estereotipoak barneratuta daudela ikusi da. Hona hemen adibide horietako batzuk:

#### 1. argazkia: lehenengo saioko 2. zaita (neska baten marrazkia)



Lehenengo marrazkia lau nesken talde batek egin du. Ikusten den moduan erabilitako kolore nagusiak arrosa eta morea dira eta gonarekin jantzi dute, nahiz eta normalean ikasle gehienek galtzekin joan gelara. Neska etxe barruan dagoela ikusten da, lehio bat dagoelako eta kanpoan elurra ari dela ikusten delako, eta etxe barruan gehienbat panpinekin joalsten ari dela ikusten da.

*2. argazkia: lehenengo saioko 2. zaita (mutil baten marrazkia)*



Bigarren marrazki hau bi neska eta bi mutilez osaturiko talde bat egin zuen. Aurrekoarekin konparatuz ikusi ditzazkegun bi desberdintasun nabariak koloreak eta kokapena dira. Berdea eta gorria erabili zuten arropa margotzeko eta horia eta urdina kanpoaldea egiteko, aurreko neska ez bezala, kalean zegoelako, eguzkia eta hodeiak ikusi ahal genituen. Horrez gain, mutila baloi batekin jolasten ari zen, edozein jolasean aritzeko baliagarria izan zitekeela, baina kasu honetan futbola gustatzen zaiola esaten ari da.

Egia da marrazki estereotipatuak aukeratu ditugula hemen jartzeko eta konparatu ahal izateko, beste batzuetan desberdintasuna ez da hain nabaria. Baina mutilak margotzerakoan antzeko koloreak eta baloiak errepikatzen ziren eta neskek margotzerako orduan panpinak eta gonak agertzen ziren maiz.

Bigarren saioan honako lanbide hauek sailkatu genituen: ileapaintzailea, suhiltzailea, zientifikoa, pilotoa, garbitzailea, haur zaintzailea, erizaina, dantzaria eta polizia. Hauetako lanbide bat esaterakoan ikasle guztiek Post-itean idatzi eta zutabe batean kokatu zuten. Lanbidea emakumeena zela uste bazuten, zutabe horretan jartzen zuten, gizonen lana bada beste zutabe horretan, eta emakumeek zein gizonek egiten zutela uste bazuten, hirugarren zutabean jarri zuten Post-ita.

### 3. argazkia: lanbideen jarduera 2.A gelan



### 4. argazkia: lanbideen jarduera 2.B gelan



Lanbide guztiak esan eta Post-it guztiak zutabetan kokatu eta gero, ikusi genuen nola geratu ziren bi geletako arbelak, hirugarren eta laugarren argazkietan ikusi dezakegun bezala. Lehenengo bistan bi geletan gehienbat lanbide guztiak gizonak zein emakumeek egin ahal zituztela atera zela ikusi dezakegu. Nolanahi ere, emakumeei garbitzaile, haur zaintzaile eta ileapantzaile bezalako lanbideak esleitu zizkieten eta gizonaezkoei aldiz, suhiltzaile, polizia eta polito bezalako lanbideak.


Ikasleei bereizketa hau zergatik egiten zuten galdetu genienean, eta arrazoi desberdinak eman eta gero, ikasle batek erantzun paregabea eman zuen → **historian zehar emakumeak izandako zapalkuntza.**

Urteak atzera egiten badugu, emakumeek ez zituzten gizonen eskubide berdinarik. Gizonak tabernetara, lan egitera eta ikastera joateko aukera zuten bitartean, emakumeek etxean geratu behar ziren, etxea garbitzen, janaria prestatzen, haurrak zaintzen eta hezitzen,

arropak garbitzen... Agerikoa da gaur egun egoera ez dela horrelakoa, baina gure gizartean rol horiek urte askotan zehar barneratuta izan ditugu, horregatik, oraindik ideia horren zertzeladak bistan daudela eta lanbideetan genero desberdintasuna ematen dela ikus daiteke. Emakumeei zaintza eta garbiketarekin zerikusia duten lanbideak lotzea, esaterako.

Hurrengo saioetan lortu ditugun emaitzak biltzeko sistema kategoriala erabili dugu. Kasu honetan, mapa kontzeptual edo eskema bat sortu dugu, non esku-hartzean landu ditugun gai nagusiak eta ikasleek eman dituzten emaitza edo esaldi desberdinak biltzen diren.

2. mapa kontzeptuala: sistema kategoriala saioen emaitzekin



Bigarren eskeman hautematen den moduan, genero desberdintasuna eta estereotipoak dira gure gai nagusiak eta hauen inguruan biratzen dira saio guztiak, izan ere, hauek lantzeko prestatu genuen esku-hartzea.

Nahiz eta **genero desberdintasuna** arlo askotan ematen den guk hiru azpigai lantzea aukeratu genituen: **lanbideak, jostailuzko katalogoak eta kirola**. Adin hauetako ikasleentzat motibagarriak izan zitekeelako eta gaia lantzeko eta ulertzeko errazak izan zitekeela uste genuelako eta horregatik aukeratu genituen.

Azpigai bakoitza saio batean landu genuen eta saio horretan jarduera desberdinak egin genituen, ikasleek **emakumeen eta gizonen** artean ze **desberdintasunak zeudela** uste zuten esateko. Hauek izan ziren ikasleek emandako erantzun edo indikatzailer esanguratsuenak:

### 1. Lanbideak

- Emakumeak→ -Ileapaindegian beti emakumeak daude barruan lan egiten  
-Umeen haur zaintzaileak beti neskak dira  
-Etxea garbitzera etortzen direnean emakumeak dira
- Gizonak→ -Telebistan agertzen diren piloto gehienak mutilak dira  
-Kaleko polizia gizonak dira

### 2. Katalogoak

- Emakumeak→ -Dena arrosa da  
-Soilik neskak agertzen dira jolasten  
-Panpinak  
-Printzesa mozorroa
- Gizonak→ -Soilik mutilak agertzen dira jolasten  
-Kotxeak, transformerrak eta pistolak agertzen dira gehienbat  
-Suhiltzaile, polizia eta zientifiko mozorroak

### 3. Kirola

- Emakumeak→ -Ez dute hainbeste kirol egiten  
-Ez zaie kirola gustatzen  
-Marimatxo (irainak)
- Gizonak→ -Erreferenteak dira  
-Kirolak mutilentzat dira  
-Gehienak futbolariak dira

Saioetan zehar aipatutako desberdintasunak, jada barneratuak zituzten **estereotipoak** gainjartzeko erabilgarriak izan ziren, eta guri benetan zer pentsatzen zuten jakiteko eta saioa bideratzeko aukera eman zigun.



Beraz, argi dugu estereotipo hauek genero desberdintasuna indartzen dutela, baina, zer nolako eragina dute gudan? Ikasleekin hitz egin eta hausnartu ondoren, argi geratu da **errealitatean** hurrengoak gertatzen dela:

- Edonork edozertan lan egin dezakeela
- Bakoitzak nahi duenarekin jolastu ahal duela
- Ez daudela nesken edo mutilen jostailuak
- Mutilak kotxeekin eta neskek panpinekin agertzen direla, baina gero kaletik emakumeek kotxeak gidatzen dituztela eta gizonak haurrak zaintzen dituztela
- Telebistan gehienbat futbola agertzen dela (partiduak eta berrietan)
- Emakume kirolariek agerikotasun gutxiago dutela

Dena den, estereotipoak gure bizitzetan nabariak izaten jarraitzen dutenez eta errealitatea eraldatzen edo mugatzen dutenez, ikasleei nola sentiarazten dieten galdetu genien, eta hauek izan ziren erantzun errepikatuenak:

- Gaizki eta triste
- Zapalduak edo mespretxatuak
- Aukera gutxiagorekin
- Baldintzatuak edo mugatuak

Emitza hauek alde batera uzten baditugu eta egunerokoa aztertzen badugu, honako kategoria eta datu hauek taldekatu ditugu:

### ***Zer izan du eragina planifikazioaren barruan?***

Faktore metodologikoei dagokienez, zerbitzua planteatzerakoan argi genuen saioak ezin zirela oso luzeak izan eta ezin izango genuela asko sakondu. Hortaz, saioak ahalik eta dinamikoen, erakargarrien eta entretenigarrien izatea saiatu ginen.

Zerbitzua planifikatzerako orduan oso luzea ezin nuela egin pentsatu nuen, bi geletan aurrera eramane behar nuelako, Practicum III-ko esku hartzea ere egin behar nuelako eta ikasleek ebaluazio amaieran zeudenez, horrek ere bere denbora hartzen zuelako froga desberdinak egiteko. Jarduerak aukeratzean genero desberdintasunaz ohartzeko egokiak izan behar zirela baina 7-8 urteetako ikasleei egokituak egon behar zirela argi nuen, beraz, ez zen oso erraza izan. Gainera, gelan egin beharreko saioak zirenez ez nituen aukera asko. (Egunerokoa, praktikaldian zehar)

Saio honi sarrera emateko aurrekoarekin egin nuen lotura. Lanbideak ikustean, batzuk emakumeei esleitu zizkieten gehiago eta beste batzuk aldiz, gizonei. Horrek arrazoi asko zituela azaldu nien eta bi nagusi ikusiko genituela esan nien. (Egunerokoa, 3. eguna, 2021-3-25)

Saioak ahalik eta efizienteenak izateko ikas-giro aproposa izatea oso garrantzitsua da, hortaz, asanblada bezalako metodologia erabiltzea egokia iruditu zitzaigun.

Zerbitzua ongi joatearen arrazoietako bat saio gehienetan erabili nuen metodologia izan zen. Izan ere, gela barruan segun eta zer landu behar zen ikasleek era batera edo bestera jartzen ziren, horietako bat asanblada modua izanik. Honetan guztiok boribilean lurrean esertzen ginen eta azalpenak, hitzaldiak, hasunarketak... hor bertan egiten ziren. Saio guztiak horrela hasten genituen, eta idazteko edo jardueraren bat egiteko dinamikak ez bazeuden horrela jarraitzen genuen saio guztian zehar. Nire aburuz horrela haiek lasaiago eta gusturago sentitzen direlako eta gertutasun gehiago emate delako ikasle eta irakaslearen artean. (Egunerokoa, praktikaldian zehar)

Planteatutako jarduerak ez zuten soilik generoarekin zerikusia, adintarte honetan ikasleek landu beharreko beste hainbat gaitasun hartzen zuten beregan, hala nola ulermena, entzumena eta idazmena.

Saioaren hurrengo atalarekin hasteko bideo bat jarri nien, non Garazi Sanchez-ek (surfista) bere ibilbidea nolakoa izan den eta txikia zenean zen bizi duen kontatzen duen. Ondoren, bideotik zer zen arreta gehien deitu zieten galdetu nien. (Egunerokoa, 4. eguna, 2021-3-26)

Emakume kirolari gehiago ezagutzeko eta agerikoagoak egiteko asmoz, ikasleek zenbait emakume kirolariei buruz informazioa jaso eta orri batzuetan idatzi beharko zuten, ondoren denak biltzeko eta bilduma antzekoa egiteko. (Egunerokoa, 4. eguna, 2021-3-26)

Lanaren planifikazioa egokia izan dela uste dut, hasieran pentsatutako gaiak jorratu direlako, egindako saioak dinamikoak izan direlako eta ikasleen beharretara eta gaitasunetara moldatu direlako. Gainera prozesu bat jarraitu dute eta saioak ibilbide bat eraiki dute, haien artean lotura izanik.

### ***Ze jarrera izan dute ikasleek momentu bakoitzean?***

Lanbide desberdinak eta bereziki jostailu desberdinen katalogoak aztertzen egon ginenean ikasleek zenbait desberdintasunetaz ohartu ziren eta komentario desberdinak egin zituzten horren inguruan.

“Nire etxea garbitzera etortzen direnak beti emakumeak izan dira” (Egunerokoa, 2. eguna, 2021-3-24)

Neskei dena arrosa ez zaie gustatzen, ez da arrosa neskekin lotu behar (mutil batek arrosa nesken kolorea zela esan zuen), koloreak ez dira neskenak edo mutilenak (Egunerokoa, 3. eguna, 2021-3-25)

Neskei soilik panpinekin jolastea ez zaie gustatzen, mutilak agertzen diren jostailuekin aritzea ere gustuko dute (Egunerokoa, 3. eguna, 2021-3-25)

Egia da, lehen aipatu dugun bezala desberintasun askotaz ohartu zirela. Dena den, ikasle batzuen jarrera momentu konkretu batzuetan oraindik ez zettorren bat egin beharreko hausnarketarekin.

“Nire anaiak horrelako pistolak ditu eta pilo bat gustatzen zait haiekin jolastea, askotan hartzen ditut”. (Egunerokoa, 3. eguna, 2021-3-25)

Kotxeak edo pistolak agertzen ziren orrialdeak agertzean mutil batzuk ohiuka hasten ziren, haien jostailuen momentua iritsiko balira bezala (Egunerokoa, 3. eguna, 2021-3-25)

Ikasleek botatako esaldi hauei esker gauza askotaz konturatu ahal izan gara. Azkenego hau aztertzen badugu, adibidez, neskek hori esatea eta horrekin jolastea ongi dagoela esan dezakegu. Baina helduok nori oparitzen edo erosten ari dizkiete jostailu mota horiek benetan? Anaiiei. Gai honetan helduok ere oraindik gauza asko aldatu eta hobetu ditzazkegu desberdintasun hori murrizteko.

## 6. ONDORIOAK

Gure laneko emaitza edo irizpide esanguratsuenak aztertzen baditugu, hala nola: haur zaintzaile eta garbitzaile gehienak emakumeak direla, neskek gehienbat panpinekin joasten dutela, gizonek fisiko indartsuarekin zerikusia duten lanbideetan gehiago ikusten direla... argi eta garbi esan dezakegu estereotipoek horretan eragiten dutela.

Emakumeei amatasunarekin eta etxea zaintzearekin erlazionatutako ezaugarriak esleitzen zaizkie, gizonezkoei aldiz, familia burua eta sostenguarekin erlazionatutako ezaugarriak. Duela urte askotatik hona hau horrelakoa izan da eta Sagarzazuk eta Lallanak (2012) dioten bezala, genero desberdintasuna indartzen duten estereotipo horiek gizonek sexu indartsua bezala ikustea eta emakumeek ahula bezala ikustea eragiten dute.

Aurreko saio batean aipatu genuen moduan, generoen arteko desberdintasuna ematearen arrazoietako bat historian zehar emakumeek jasandako zapalkuntza da, eta beste bat, txikitatik barneratzen ditugun estereotipoak dira. Modu desberdinen bidez buruan sartzen dizkiguten ideiak, eta askotan guk nahi gabe praktikan jartzen ditugunak.

Errealitatean ematen diren egoerak horiek ez badira aldatzen eta desberdintasunak jarraitzen badute, genero rola estereotipatuak egoten jarraituko dute, eta hori gertatzen bada, emakumeen gaitasunak eta ahalmenak mespretxatuak izango dira. Ondorioz, horrek gure sentimenduak negatiboak izatea eragingo du, ez delako atsegina emakumeen gaitasunak zalantzan jartzea edo pertsona batek egin ahal duen zerbaitetan ez sinistea. Sentimedu hauek sorrarazten dizkiguten estereotipoek generoari daude esleituak eta emakumeak gutxiesten dituzte. Izan ere, indarrarekin, lidergoarekin edo sostenguarekin zerikusia dutenak gizonezkoei esleitzen zaizkie eta ahultasunarekin, sumisioarekin edo lasaitasunarekin erlazionatzen direnak aldiz, emakumezkoei (Blández, Fernández eta Sierra, 2007)

Hortaz, **estereotipoekin apurtzeko** asmoz, irtenbide batzuk proposatu eta konpromezu batzuk hartu genituen (betiere egin genituen jardueretan oinarrituta). Ikasleek nesken eta mutilen irudiak elkarrekin agertu beharko lirakeela esan zuten, haur txikiagoekin katalogoak aztertuko zituztela eta ikasitakoa azalduko zirela, emakumeen kirola sostengatuko zutela... Eta gelan aldaketa txiki honen lehenengo pausuekin jarraitzeko, emakume kirolarien bilduma osatu genuen.

Azken finean, haurren ikasketa prozesuan eragina zuen edonork berdintasunean hezi behar zuelako, guztiei aukera berdinak emanaz, edonori ikusgarritasun berdina emanaz eta ikasitakoari buruz behin eta berriro hausnartuz aldaketak eta hobekuntzak egin ahal izateko (Talbot, 1993)

Emitza esanguratsuenak alde batera uzten baditugu eta hasieran planteatutako helburuetan zentratzen bagara, gehienak bete egin zirela esan dezakegu. Alde batetik, ikasleek konturatu ziren estereotipoek genero bereizketa eragiten dutela, baina errealitatean bakoizak nahi duena egin dezakeela ulertu zuten. Hortaz aparte, emakumeek nahi dutena egiteko ez dutela inoren laguntza edo mantenua behar ere ikasi zuten.

Gainera, jarduera bakoitzarekin lortu nahi genituen helburuak ere bete dira, beraz, prozesu txikia lortu dugu. Ikasleek erakusten diguten guztia eta komunikabideetan ateratzen dena ez dela egoera erreal batera hurbiltzen ulertu dute eta ikusten dutenaz aparte gauza gehiago daudela ikasi dute. Azkenean jarduera hauekin ikasleek pentsarazi eta hausnartu dute eta egoera hobetzeko eta aldatzeko nahian konpromezu batzuk hartu dituzte. Horrek, lortu nahi genuenaren adierazle da, eta helburuak ulertu eta lortu dituztela ere adierazten digute, klik bat egin dutelako eta jasotzen duten informazio askoren atzean “mezu ezkutuak” daudela ikusteko aukera izan dutelako. Azken finean, Blándezek, Fernándezek eta Sierrak (2007) diotenez, pertsona bakoitzaren testuinguruaren arabera estereotipoak era desberdinean baneratu ahal direla jakin behar dugu. Hortaz, garrantzitsua da jakitea jasotzen dugun informazioa aztertzen eta ikertzen.

Helburuak gainbegiratzeko baditugu; planifikazioarekin lotura zuten helburuak hartzen baditugu gehienak ere bete direla esan dezaket. Egia da hasieran Gorputz Hezkuntzarekin erlazionaturiko jarduerak egin behar nituela baina mugen atalean azalduko dudan arazoengatik ezin izan dut lana era horretara aurrera eraman.

Dena den, saioak aurrera eramaterako orduan nire asistentzia totala izan da bi geletan. Ikasleek izandako inplikazioa eta jarrera egokia izan dela esan dezaket eta hori motibatutako mantendu dituzten jarduerak aurrera eraman ditugulako eta gaia lantzeko haien interesetan oinarritutako dinamikak erabili ditugulako da, beraz, aurretik planteatutako helburuak lortu ditugu. Gainera, saioen arteko lotura eman denez eta dinamika ez denez apurtu dena segidan egin delako, helburuak lortzea errazagoa izan da.

Hala ere, esan beharra dago markatu genuen bigarren helburua (saioen denbora ongi kontrolatzea) ez dela guztiz bete. Izan ere, saio bakoitzean gai bat hastea eta amaitzea zen

helburua baina zenbait ekintza betetzeko ikasleek denbora gehiago behar zuten, azalpenak luzeagoak izan behar ziren, edo hausnartzean eta asanblada egitean eztabaidak eta bizipenen plazaratzea luzatzen zen.

Arrazoi hauengatik, jarduera batzuk ez ziren saioan bertan amaitzen eta hurrengorako utzi behar genituen. Sortez denboraz ongi genbilen eta dena ongi amaitzeko aukera izan genuen, nahiz eta saio bat edo bi luzatu.

## 7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan hau aurrera eramateko agertu zaigun muga nabarmenena Practicum orduetan egin behar izatea izan da. Hasiera batean, praktikak egin behar nituen eskolan egitea pentsatu nuen, bazkalostean geratzen ziren ikasleekin. Horretarako eskolako zuzendariarekin kontaktuan jarri nintzen eta ze ideia nuen komentatu nion, baina aurten, Covid egoera dela eta, eskolako ordutegia soilik goizez izatera aldatu zela esan zidan. Beraz, oso ikasle gutxi geratzen ziren bazkaltzera eta amaitzea etxera joaten ziren, arratsaldean ez baitzuten klaserik. Horrez gain, burbuilak mantentzeko, ezin ziren gela desberdinetako ikasleak elkartu, beraz oso zaila izango zen gela bakarreko talde handi bat lortzea bazkaltzera geratzen ziren ikasleen artean.

Idea hau alde batera uztea erabaki genuen eta irakasle tutorearekin hitz egin nuen landa-lana praktika orduetan sartzeko arazorik zuen ala ez jakiteko. Ongi iruditu zitzaionez ideiarekin aurrera jarraitu genuen, plangintza guztia bi geletan errepikatzea eskatu zidatenez (bi geletako erritmoa ez deskonpentsatzeko) ezin izan nuen saio askotako zerbitzua planteatu.

Hasiera batean, zerbitzua Gorputz Hezkuntzarekin gehiago erlazionatzeko ideia nuen, saio hauetan neskek eta mutilek hartzen dituzten rola ikusteko eta desberdintasunak somatzeko. Gauza da, denbora tarte horretan ere Practicum III-ko Unitate Didaktikoa aurrera eraman behar nuela, Gorputz Hezkuntzako, beraz, ezin nituen Gorputz Hezkuntza saioko ordu gehiago hartu eta zerbitzua gela barruan egin behar izateak muga batzuk aurkeztu zituen. Hori dela eta, prestatutako saioak gela eremurako planteatzea erbaki genuen, horregatik, nahiz eta emakumea eta kirola era teorikoan ikusi, lana bere osotasunean genero desberdintasunean zentratzen da gehiago.

Zerbitzua hobetzeko inguruko emakume kirolarien hitzaldiak gelara eramatea oso ongi egongo legokeela pentsatu nuen, ikasleei beti lilura ematen dietelako horrelako gauzak, beraz Covid egoerak uzten duenean planteatu ahal den zerbait dela uste dut. Hortaz aparte, zerbitzua luzatzea ezibestekoa izango litzateke, neskek eta mutilek saio desberdinetan dituzten jarrerak nolakoak diren ikusteko eta haien artean zer nolako harremanak ematen diren aztertzeko. Horrela ere, bereziki Gorputz Hezkuntzan zentratzeko aukera izango genuke, baina alde aurretik genero desberdintasuna zer den eta ze aspektutan ematen den jakinik.

Azkenik, gai hauek adin tarte handiagoko ikasleekin jorratzea ere oso ongi egongo zen. Izan ere, gizartean ematen diren desberdintasunetaz gehiago badakite eta desberdintasun horiek dakarrenaz ohartzen dira. Beraz, informazio gehiago dute eta argudio sendo gehiago portatu ahal dituzte, gaien gehiago sakontzea eta eztabaida gehiago sortzea eragingo duena. Hau polita izan daiteke ikuspuntu desberdinak konparatzeko eta ulertzeko eta ondoren etorkizunerako jardun edo ekintza esanguratsuak aurrera eraman ahal izateko.

## 8. ERREFERENTZIAK

Amurrio, M., Larrinaga, A., Usategui, E. eta Del Valle, A. (2009). Los estereotipos de género en los/las jóvenes y adolescentes. *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible* (227-248. or). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012.  
<https://www.campuseduacion.com/blog/wp-content/uploads/2018/04/Estereotipos-de-g%C3%A9nero-en-los-j%C3%B3venes.pdf>

Arenas Fernández, Maria Gloria. (2006). *Triunfantes Perdedoras*. Grao.

Blández, F., Fernández, E. eta Sierra, M. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2), 1-21. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.redalyc.org/pdf/567/56711206.pdf>

Bosch, M. (2019). *El fomento de la igualdad y la prevención de violencia de género desde la metodología ApS (Trabajo Fin de Máster)*. Castellon: Universitat Jaume I. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/185909/TFM\\_2019\\_BoschPrieto\\_Maria.pdf?sequence=1&isAllowed=y](http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/185909/TFM_2019_BoschPrieto_Maria.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Calvo, E., Sotelino, A. eta Rodríguez, J. E. (2019). Aprendizaje-Servicio e inclusión en educación primaria. Una revisión sistemática desde la Educación Física. *Retos*, 36, 611-617. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[https://minerva.usc.es/xmlui/bitstream/handle/10347/20752/aprendizaje\\_calvo.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://minerva.usc.es/xmlui/bitstream/handle/10347/20752/aprendizaje_calvo.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Capella, G., Gil, J. eta Martí, M. (2014). La metodología del aprendizaje-servicio en la educación física. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 116, 33-43. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/120023/63944.pdf?sequence=1&isAllowed=y>



- Colás, P. eta Villaciervos, P. (2007). La interiorización de estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista de Investigación Educativa*, 25 (1), 35-58. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://revistas.um.es/rie/article/view/96421/92631>
- Espinar, V. (2009). Infancia y socialización. Estereotipos de género. *Padres y maestros*, (326), 17-21-or. <https://revistas.comillas.edu/index.php/padresymaestros/article/view/1319/1126>
- Gil, J., Francisco, A. eta Moliner, L. (2012). La educación física y el aprendizaje servicio: abriendo el entorno natural a la escuela. *Tandem*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/77806/52108.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Hidalgo, T. eta Almonacid, A. (2014). Estereotipos de Género en las clases de Educación Física. *Revista Motricidad Humana*, 15(2), 86-95. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://jmh.pucv.cl/index.php/jmh/article/viewFile/75/74>
- Lagarde, M. (1998): *Identidad genérica y feminismo*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
- Mendia, R. (2016). El aprendizaje-servicio: una metodología para la innovación educativa. *Convives revista digital*, (16), 20-26. Honako webgune honetatik berreskuratua: [https://drive.google.com/file/d/0BwmG\\_rAXpAZfQzFoZzJsQmx3VGM/view](https://drive.google.com/file/d/0BwmG_rAXpAZfQzFoZzJsQmx3VGM/view)
- Mosquera, I. (2019). Aprendizaje servicio: la metodología que necesitamos. *UNIR*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.unir.net/educacion/revista/aprendizaje-servicio-la-metodologia-social-que-necesitamos/>
- Monasterio, M., González, S. y García, A. (2011). *La Coeducación en la Escuela del Siglo XXI*. Madrid: Catarata.
- Piedra, J., García-Pérez, R., Fernández-García, E. eta Rebollo, M.A. (2014). Brecha de género en educación física: actitudes del profesorado hacia la igualdad. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte*, 14 (53), 1-21. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/542/54230508001.pdf>

Pujadas, J. J. (1992): *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.

Sagarzazu, I. eta Lallana, I. (2012). La influencia de los estereotipos de género tradicionales en la participación deportiva de las mujeres y su reproducción en los medios de comunicación. *I Congreso Internacional de Comunicación y Género*. (2032-2047.or). <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/38818/Pages%20from%20LIBRO%20ACTAS%20I%20CONGRESO%20COMUNICACION%20Y%20G%20NERO11-6.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Talbot, M. (1993). A gendered physical education: equality and sexism. En J. Evans (ed.), *Equity (coord.), Education and Physical Education (74-89.or)*. Tokia: editoriala falta dira

Vizcarra, M. eta Garay, B. (2014). Zerbait aurreratu da Gorputz Hezkuntzan eta kirolean genero ikuspegitik?. *Jakingarriak*, (74), 46-56.or. <http://ebiltegia.mondragon.edu:8080/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1557/JAKINGARRIAK%2074.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

## 9. ERANSKINAK

### 9.1 Ikasleei pasatako galdetegiak

# ***ESTEREOTIPOAK***

Markatu X batez esaldi bakoitzarekin ados edo desados zauden.

	ADOS	DESADOS
Gizonezkoek lan garrantzitsuagoa izan behar dute familia mantentzeko		
Emakumezkoek lan batzuk daude esleituak, eta gizonezkoek beste batzuk		
Gizonezkoek emakume askorekin atera daitezke, baina ez alderantziz		
Gizonezkoek ezin dute negarrik egin		
Kirol batzuk emakumeentzat dira eta beste batzuk gizonentzat		
Etxeko lanak, normalean, emakumeek betetzeko dira		
Normalean emakumeek zaindu behar dituzte haurrak		
Emakumeek kontuz ibili behar dira haien janzkerarekin		
Ongi dago zerbait kendu dizun pertsona bati jotzea edo errespetua ez izatea		

# ETXEKO LANAK

Zurekin etxean bizi diren kideak zutabe bakoitzean jarri eta X batekin markatu taulako eginkizun bakoitza nork betetzen duen.

	NI				
<b>Platerrak garbitu, garbigailua jarri</b>					
<b>Janaria prestatu</b>					
<b>Mahaia jarri eta bildu</b>					
<b>Etixerako lanekin lagundu</b>					
<b>Haurrekin jolastu</b>					
<b>Oheak egin</b>					
<b>Etxea garbitu</b>					
<b>Erosketak egin</b>					
<b>Zakarra bota</b>					
<b>Etxean apurtzen dena konpondu</b>					
<b>Arropa garbitu, plantxatu</b>					

## 9.2 Emakume kirolarien informazioa bilduma egiteko

- **Garazi Sanchez**

Algorta, 1992. Surfista.

Garazik, batez beste, bost ordu ematen ditu egunero entrenatzen: hondartzan, gimnasioan, fisioan, bistaratzean eta estrategia zehaztean. Zortzi hilabete inguru ematen ditu etxetik kanpo, agian bere alderik gogorrena.

2017-2018→ Espainiako txapelduna

2017→ 2. postua Europa mailan

2018→ 3. postua Europa mailan

2019→ bizkarrezur lesioa

2020→ buelta txapelketetara

- **Andrea Barnó**

Lizarra, 1980ko urtarrilaren 4a. Eskubaloi jokalaria.

Bere kirol ibilbide osoa Itxako taldean (Lizarra) egin zuen. Horrez gain, Espainiako talde nazionalarekin hainbat txapelketetan parte hartu zuen urte askotan zehar. Bere ibilbide profesionalean, 1999tik 2012ra iraun zuena, hainbat sari lortu zituen, hala nola:

Espainiako liga 4 aldiz, 2009, 2010, 2011 eta 2012an

Erregina Kopa 3 aldiz, 2010, 2011 eta 2012an

Espainiako Superkopa 3 aldiz, 2010, 2011 eta 2012an

EHF Kopa behin, 2009an. 2008an txapeldunordea izan zen

2008→ Zilarrezko domina Mazedoniako Europako Txapelketan

2011→ Brontzezko domina Brasilgo Munduko Txapelketan

2012→ Brontzezko domina Londreseko Olinpiar Jokoetan

- **Almudena Cid**

Gasteiz, 1980ko ekainaren 15a. Gimnasia erritmikoko kirolaria.

Lau Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen: Atlanta 1996, Sydney 2000, Atenas 2004 eta Pekin 2008, azken bietan diploma lortuz eta lau final olinpiko jokatu dituen gimnasta erritmiko bakarra izanez.

2005eko Almeriako Mediterraneoko Jokoetan urrea lortu zuen, nazioarteko hainbat domina ofizial lortu zituen eta 8 Espainiako txapeldun titulu lortu zituen ohorezko mailako lehiaketa orokorrean.

- **Edurne Pasaban**

Tolosa, 1973ko abuztuaren 1a. Alpinista.

Munduko hamalau zortzimilakoak igo dituen lehen emakumea. 2001ean igo zuen lehen zortzimilakoa eta 9 urte ondoren, 2010ean, osatu zituen hamalau zortzimilakoak.

16 urterekin Mont Blanc-era (4.810 m) igo zen. Esperientzia horrek halako arrastoa utzi zuen beragan, ordutik mendia ezinbestekoa izan dela bere bizitzan. 2010. urteaz geroztik ohore handia du alpinismoaren historian parte hartzeko, munduko lehen emakumea izan baizen planetako 14 zortzimilakoak igotzen:

- Everest
- Makalu
- Cho Oyu
- Lhotse
- Gasherbrum I
- Gasherbrum II
- K2
- Nangaparbat
- Broad Peak
- Dhaulagiri
- Manaslu

- Kanchenjunga
- Annapurna
- Shisha Pangma

- **Maite Oroz**

Huarte, 1998ko martxoaren 25a. Futbol jokalaria

Huarteko futbol taldean aritu zen jolasten 12 urte izan arte, noiz Osasunak bere fitxajea egin zuen. Behe mailako taldeetan jolasten zuen bitartean Espainiako talde nazionalarekin jokatzeko deitu zuten eta 16-17 urte azpiko txapelketetan parte hartu zuen. Urte horietan Europako txapeldun eta txapeldunordea eta munduko txapelduna gertatu zen. Bigarren mailan Osasun amaitzean, Athletic Club-era pasa zen eta beste urte bat maila berean egon eta gero, lehenengo mailara egin zuen jauzia.

5 urtez egon zen lehenengo mailako talde honetan eta taldeak lortutako postu onengatik eta Maitek lortutako emaitza eta egindako garapen positiboari esker UEFA-n jolasteko aukera izan zuen. 2018-2019 denborladian lesio bat jasan zuen baina hurrengo urtean bueltatzean, Ramon Carranza Txapelketa irabazi zuen bere taldearekin. Datu zoragarri hauek Real Madrid-en arreta deitu zuten eta urte horretan bertan talde horretatik fitxatu zuten. Gaur egun, lehenengo mailan jokatzeko jarraitzeaz gain, Espainiako talde nazionalarekin konbokatua izan da eta Futbol Draft-eko 11 pertsonetatik bat bera da.

- **Ruth Beitia**

Santander, 1979ko apirilaren 9a. Atleta (salto de altura)

Bi domina olimpiko lortu dituen Espainiako atleta bakarra da, eta urrezko domina olimpikoa lortu duen lehena.

## OLINPIAR JOKOAK

2012 (Londres) → 3. postua

2016 (Rio de Janeiro) → 1. postua

## MUNDUKO TXAPELKETA ZELAI ITXIAN

2006 (Errusia) → 3. postua

2010 (Katar) → 2. postua

2014 (Polonia) → 3. postua

2016 (Estatu Batuak) → 2. postua

## EUROPAKO TXAPELKETA

2012 → 1. postua

2014 → 1. postua

2016 → 1. postua

## EUROPAKO TXAPELKETA ZELAI ITXIAN

2005 → 2. postua

2007 → 3. postua

2009 → 2. postua

2011 → 2. postua

2013 → 1. postua

2017 → 2. postua

- **Carolina Marin**

Huelba, 1993 ekainaren 15a. Badminton jokalaria

## OLINPIAR JOKOAK

2016 (Rio de Janeiro) → 1. postua

## MUNDUKO TXAPELKETA

2014 (Danimarka) → 1. postua

2015 (Indonesia) → 1. postua

2018 (Txina) → 1. postua



## EUROPAKO TXAPELKETA

2014→ 1. postua

2016→ 1. postua

2017→ 1. postua

2018→ 1. postua

- **Mireia Belmonte**

1990ko azaroaren 10a, Badalona. Igerilaria

Bi estilo desberdinetan lehiatzen du “mariposa” eta “libre”. Bere lehenengo olinpiar jokoak Pekinekoak izan ziren, soilik 17 urte zituelarik, dena den, hurrengoan (Londres 2012) izan zen bere lehenengo domina lortu zuenean.

## OLINPIAR JOKOAK

2012 (Londres) → 2. postua bi aldiz

2016 (Rio de Janeiro) → 1. postua eta 3. postua

## MUNDUKO TXAPELKETA

2013 (Espainia) → 2. postua bi aldiz eta 3. postua

2017 (Hungria) → 2. postua bi aldiz

## MUNDUKO TXAPELKETA IGERILEKU MOTZEAN

2008 (Erresuma Batua) → 2. eta 3. postua

2010 (Arabiar emiratoak) → 1. postua hiru aldiz eta 2. postua

2014 (Katar) → 1. postua lau aldiz

## EUROPAKO TXAPELKETA

2008→ 1. eta 3. postua

2012→ 1. eta 2. postua

2014→ 1. postua bi aldiz, 2. postua bi aldiz eta 3. postua bi aldiz

2016→ 2. postua bi aldiz eta 3. postua

## EUROPAKO TXAPELKETA IGERILEKU MOTZEAN

2007→ 2. postua

2008→ 1. postua

2009→ 2. postua

2011→ 1. postua lau aldiz

2013→ 1. postua lau aldiz

Domina guzti hauek irabazteaz gain, esan beharra dago Mireiak goraiatuak izan behar diren denbora batzuk lortu zituela hainat txapelketetan:

- 2008an bere lehen munduko errekorra lortu zuen, 400m estiloetan
- 2011n, urteko munduko markarik onena lortu zuen 400 metroko estiloan, eta Espainiako errekorra lortu zuen 200 metroko tximeleta estiloan
- 2014an munduko lehen igerilaria izan zen tximeleta estiloko 200 metrotan 2 minutuetatik jaisten

- **Lydia Valentin**

1985ko otsailaren 10a, Ponferreda. Halterofilia kirolaria

Soilik 15 urterekin bere herria utzi zuen Madrilera joateko eta horrela bere kirolean modu profesional batean entrenatu ahal izateko.

## OLINPIAR JOKOAK

2008 (Pekin) → 2. postua

2012 (Londres) → 1. postua

2016 (Rio de Janeiro) → 3. postua

## MUNDUKO TXAPELKETA

2013→ 2. postua eta 3. postua bi aldiz

2014→ 3. postua bi aldiz

2017→ 1. postua 3 aldiz

2018→ 1. postua bi aldiz eta 3. postua

2019→ 2. postua eta 3. postua

## EUROPAKO TXAPELKETA

2007→ 2. postua

2008→ 2. postua

2009→ 3. postua

2011→ 3. postua

2012→ 2. postua

2013→ 2. postua

2014→ 1. postua

2015→ 1. postua

2017→ 1. postua

2018→ 1. postua

2018→ 2. postua

## BESTELAKO SARIAK

2017 eta 2018→ Munduko halterofiliarik onena

Espainiako irabazlea 15 aldiz

## 9.3 Erabilitako bideo eta katalogoak

[https://www.instagram.com/p/CMJ9Zn\\_qvC2/](https://www.instagram.com/p/CMJ9Zn_qvC2/)

<https://juguetos.com/content/11-catalogo-navidad-2018> (80-99 eta 162-175)

## 9.4 Rol-jolaserako materiala

### 1. TXIRRINDULEN TAILERRA

Gema eta Maria 12 eta 15 urte dituzte, beraz, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBH-ko 2. mailan daude. LHko 5. mailan zeudenean, Patxi, eskulanetako irakasleak, mekanika tailer

bat egin zuen. Bertan, ikasleek, elektrizitate arazoak eta txirrindulak konpontzen ikasi zuten. Momentu hartatik aurrera, bi neskek eta Mikel, bere laguna, eskolako txirrindulen tailerraz arduratu ziren bertan lan egiten. Bi urteetan zehar eskolako haurren txirrindula eta triziko pilo bat konpontzeaz gain, gurasoek eramaten zizkieten jaioberrien autoak ere konpondu zituzten.

Aurten, Gema eta Maria, diru piska bat irabazi eta aurreztu nahi dute lo zaku batzuk erosteko, ondoren, lagunekin oporretara joan ahal izateko. Hori lortzeko, auzo berean bizi direnez, hor bertan txirrindulak konpontzeko tailer bat irekitzea erabaki dute. Lokala bilatzen ari zirenean, Mariak bere eraikinean auzokide guztiena den gela bat dagoela gogoratu zuen, eta trasto z betea zegoenez, erabilera berri hau ematea ideia ona izango litzatekeela pentsatu zuen.

Maria auzokideen presidentearekin hitz egitera joan zen:

- Eraikineko gela txirrindulak konpontzeko tailer bat jartzeko libre dagoen jakin nahiko nuke
- Bai Maria, baina esan zure anaiari bera etorri behar dela horri buruz nirekin hitz egiteko

Mariak gela bere anaiarentzat ez zela azaldu zion gizonari, berak eta bere laguna Gema izango zirela txirrindulak konponduko zitutenak esan zion.

- Hori txorakeria bat da! Non ikusi duzu neska batek txirrindula bat konpondu ahal duenik?- erantzun zion presidenteari- Benga, zoaz etxera zure panpinekin jolastera!

## **GALDERAK**

1. Nola sentituko zinetek Maria izango bazinate?
2. Ze ideia du neskei buruz auzokideen presidenteari?
3. Zer eragin dute ideia hauek Gema eta Mariarengan?
4. Zer eragin dute ideia hauek auzoko gainontzeko haurrengan?

## **ANTZEZTEKO PAPERAK**

- Gema eta Maria txirrindulak konpontzen dituzte eta segurtasun handia dute egiten duten lanean.
- Josebari txirrindula apurtu zaio eta tailer baten bila dago. Gema eta Mariarena ikustean pozik jartzen da eta bertara joaten da. Bere txirrindula konponduko dutenak bi neska direla ikustean ez da guztiz fidatzen eta ez du nahi txirrindula bertan utzi.
- Gema eta Maria Josebari konbentzitu behar diote txirrindula dendan uzteko.

## **2. HERRIALDEAK BISITATZEN**

Aurten Maite bere ikasketak amaitzen ditu eta udan libre egongo denez beste herrialde batera joan nahi du denbora luze bat pasatzera. Bertan, jende eta kultura berriak ezagutu nahi ditu eta ikasteko aukera paregabea dela uste du.

Etxean komentatu duenean bere aitonak ez da oso pozik jarri. Neska bat beste leku batera bakarrik joatea oso arriskutsua izan daitekeela esan du. Gainera, bera joaten bada, etxean nork lagunduko duenari buruz kezkatu da. Arkaitzek, hau entzutean, bera etxeko lanetan arazorik gabe lagundu ahal duela erantzun du, gainera, berak Maiteren adinarekin oporretan kanpora joan zela ere aipatu du.

Aitonak berarentzat egoera desberdinak direla aitortu du, baina dena gurasoeki hitz egin beharko dutela eta haiekin konpondu beharko direla esan du.

### **GALDERAK**

1. Ongi iruditzen zaizue Maitek izan duen ideia?
2. Zer iruditzen zaizue Arkaitzen jarrera?
3. Zergatik uste duzue aitonarentzat egoera desberdinak direla? Zergatik egiten da konparaketa hori?
4. Nola sentituko zinetke konparaketa hori egiten badizuete?

### **ANTZEZTEKO PAPERAK**

- Maite eta Arkaitz egongelan daude, bata etxerako lanak egiten eta bestea telebista ikusten
- Aitona egongelara sartzen da eta zuzenean Maiteri esaten dio sukaldean laguntza behar dutela

- Arkaitzek ezer ez dagoenez egiten laguntzeko altxatzen, da baina aitonak Maite joan behar dela esaten du eta iskanbila sortzen da

## 9.5 Esku-hartzea egiteko erabilitako fitxa

### Izen-abizenak: Andrea Amatria Valencia

<b>Izenburua</b>	Genero estereotipoak deseraikitzen
<b>Eskola / Erakundea</b>	Lizarra Ikastola
<b>Zerbitzuaren helburua(k)</b>	
<p>-Ikasleek gaur egungo gizartean dagoen genero desberdintasunaz ohartzea.</p> <p>-Ikasleek Gorputz Hezkuntzako ekintza desberdinen bidez genero desberdintasun hori ekiditzen edo murrizten saiatzea.</p>	
<b>Ekintzak</b>	
<p>Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzua prestatzeko.</li> <li>• Sarrera eskolan/erakundean eta taldean.</li> <li>• Zerbitzua martxan dagoen bitartean.</li> <li>• Itxiera.</li> </ul> <p>Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).</p>	
<p><b>1. Aurreideiak (ikasleek estereotipoei buruz dituzten aurreideiak ezagutzeko)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek bi galdetegi desberdin bete beharko dituzte</li> <li>- Taldeka marrazki handia egin beharko dute emakumezkoen eta gizonezkoen ezaugarriak, hobbiak, lanak, nahiak... adieraziz</li> </ul> <p>→ Materiala: fitxak, paper handia, margoak, irakasleak proposatuko dituen galderak ikasleek marrazkia osatzen joateko</p>	
<p><b>2. Lanbide estereotipoak (txikitatik sartzen dizkiguten ideietaz eta estereotipoetaz konturatzeko eta nahi gabe egiten dugun bereizketaz ohartzeko)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide desberdinak aztertuko ditugu eta bi zutabetan banatu beharko dituzte</li> <li>- Horren zergatia zein uste duten dela esango dute</li> <li>- Hausnarketa</li> </ul> <p>→ Materiala: post-itak, paper handia edo arbela eta margoak</p>	
<p><b>3. Estereotipoak (txikitatik sartzen dizkiguten ideietaz eta estereotipoetaz konturatzeko)</b></p>	

- Katalogo desberdinak aztertuko ditugu, neskak eta mutilak nola agertzen diren ikusteko (koloreak, jostailuak, arropak...)
- Ikustako desberdintasunak komentatu
- Hausnarketa: zergatik gertatzen da hori, zer iruditzen zaie, nola sentitzen dira, zer hobetuko zuten...

→ Materiala: material digitala (katalogoak)

#### 4. Emakume kirolariak (**emakumeek kirol munduan duten paperaz ohartzeko eta zonaldeko emakume kirolariak ezagutzeko**)

- Emakume kirolariak ezagutzen dituzten
- Zergatik ematen diren hainbeste desberdintasun
- Bideoak emakume kirolariei buruz
- Emakume kirolarien informazioa landuko dugu (batzuk aukeratu)
- Emakume hoiekin "bilduma" egingo dute

→ Materiala: bideoak, txartelak, paperak, kartulinak, errotulagailuak

#### 5. Rol jolasa (**besteen egoeran jartzeko, enpatia lantzeko eta egoera hauei buruz pentsarazteko**)

- Hirunaka edo launaka jarriko dira eta bakoitzari paper bat emango zaio
- Rolpalying bat burutu beharko dute
- Nola sentitu diren konpartitu beharko dute
- Horrelako egoerak ematen diren esan beharko dute
- Hausnarketa orokorra egingo da

→ Materiala: papertxoak (pertsoneiak, egoerak/elkarrizketak)

### Kronograma

Ekintzen egutegia.

Data / Denbora-tartea	Ekintza
1. saioa	Aurreideiak
2. saioa	Lanbide desberdinak
3. saioa	Estereotipoak (haurretan, telebistan, lanetan...)
4. saioa	Estereotipoak kirolean (emakume kirolariak)
5. saioa	Rol jolasa + hausnarketa orokorra

### Dokumentazioa

Informazioa nola jasoko duzu?

Planteatutako ariketen emaitzak aztertuz, haien jarrera (egindako komentarioak edo izandako erreakzioak, adibidez) behatuz eta momentu bakoitzean sentitu dutena galdetuz.



## 9.6 2. mapa kontzeptuala: sistema kategoriala saioen emaitzekin

